(*) Konparatzeko bakarrik aurkeztuta (2.5 oharra) / Presentado exclusivamente a efectos comparativos (Nota 2.5)

**EUSKAL IRRATI TELEBISTA – RADIO TELEVISION VASCA ETA MENDEKO SOZIETATEAK (EITB TALDEA)**

**2022KO ABENDUAREN 31N AMAITUTAKO URTEKO EKITALDIARI DAGOKION TXOSTENA**

**(1) EITB Taldearen jarduerak**

Euskal Irrati Telebista – Radio Televisión Vasca S.A. Erakunde Publikoa (aurrerantzean, Erakundea) berezko nortasun juridikoarekin eta iraupen mugagabearekin eratu zen, Eusko Legebiltzarraren maiatzaren 20ko 5/1982 Legearen bitartez, Legebiltzarrak, Autonomia Estatutuaren 19. artikuluan ezarritakoari jarraikiz, irrati-difusioko eta telebistako bitartekoekin loturan dituen eskumenen arabera. Lege horretan aurreikusitako salbuespenetan izan ezik, Merkataritzako Zuzenbidearen eta Zuzenbide Zibilaren mende dago Erakundea. Lege horretan taxutu ziren, eskumenok baliatuz, bertan aipatutako hedabide sozialak, euskal herritarrek politikari buruzko informazioa izateko eta politikan parte hartzeko tresna nagusi gisa eta hezkuntza-sistemarekin elkarlanean aritzeko eta euskal kultura sustatzeko eta zabaltzeko funtsezko bitarteko gisa, betiere euskararen sustapena eta garapena kontuan harturik.

Irrati- eta telebista-zerbitzu publikoen kudeaketa horretarako sortutako EITB Media, S.A.U. sozietatearen bidez egiten da.

Erakundeak Bilbon du egoitza eta helbide soziala; hain zuzen, Basurtuko Kaputxinoen bidearen 2. zenbakian. EITB Media SAUk bi lantoki ditu telebista-negoziorako, bata Bilbon eta bestea Miramonen (Donostia), eta irrati-negoziorako emisio-zentroak, hiru euskal hiriburuetan ditu (Bilbo, Donostia, Gasteiz).

1982 Legearen 6. artikulutik 14. artikulura arte ezarritakoaren arabera, 19 kidez osatutako Administrazio Kontseilu bat izango da, hilero bilduko dena, eta besteak beste honako hauek onartzeko ahalmena izango du: zuzendari nagusia, proposamenez; Erakundearen jarduera-plana; Erakundearen plantilla eta egiten zaizkion aldaketak; Erakundeko eta haren sozietateetako langileen ordainsarien araubidea, eta

**EUSKAL IRRATI TELEBISTA – RADIO TELEVISIÓN VASCA Y SOCIEDADES DEPENDIENTES (GRUPO EITB)**

**MEMORIA CORRESPONDIENTE AL EJERCICIO ANUAL TERMINADO EL 31 DE DICIEMBRE DE 2022**

**(1) Actividad del Grupo EITB**

El Ente Público Euskal Irrati Telebista – Radio Televisión Vasca, en adelante el Ente, fue constituido con personalidad jurídica propia y duración indefinida, mediante la Ley 5/1982, de 20 de mayo, del Parlamento Vasco, según las competencias que, en relación con los medios de radiodifusión y televisión, tiene éste asumidas por lo dispuesto en el artículo 19 del Estatuto de Autonomía, estando sujeto, sin más excepciones que las previstas en la mencionada Ley, al Derecho Mercantil y Civil. Se configuran en la citada Ley, en el ejercicio de dichas competencias, los medios de comunicación social a los que la misma se refiere como instrumento capital para la información y participación política de los ciudadanos vascos, como medio fundamental de cooperación con el sistema educativo y de fomento y difusión de la cultura vasca, teniendo muy presente el fomento y desarrollo del euskera.

La gestión de los servicios públicos de radio y televisión se lleva a cabo mediante la sociedad EITB Media, S.A.U. creada a tal efecto.

El Ente tiene su sede y su domicilio social en Bilbao Camino Capuchinos de Basurto 2. EITB Media, S.A.U. posee para el negocio televisivo dos centros de trabajo, uno en Bilbao, y otro en Miramón (San Sebastián) y para el negocio radiofónico posee centros de emisión en las tres capitales vascas (Bilbao, San Sebastián, Vitoria).

Los artículos 6 al 14 de la Ley/1982 establecen que existirá un Consejo de Administración formado por 19 miembros, que se reunirá mensualmente y cuyas facultades son, entre otras, la aprobación a propuesta del Director General, del plan de actividades del Ente, de las plantillas del Ente y sus modificaciones, del régimen de retribuciones del personal del Ente y de sus sociedades y de la propuesta de presupuesto del Ente y de sus sociedades.

Erakundearen eta haren sozietateen aurrekontu-proposamena.

Erakundea sortu zuen 5/1982 Legearen 45. artikuluak xedatzen duenez, Euskal Herriko Autonomia Elkartearen Aurrekontu Orokorren kargura eta egiten dituen jarduerengatiko diru-sarreren eta etekinen bitartez finantzatuko dira Euskal Irrati-Telebista Erakundea eta haren zerbitzuen Kudeaketa Sozietate Publikoak (16. oharra).

El artículo 45 de la Ley 5/1982, de creación del Ente Público, determina que el Ente Euskal Irrati Telebista y las Sociedades Públicas Gestoras de sus servicios se financiarán con cargo a los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi y mediante los ingresos y rendimientos de las actividades que realicen (Nota 16).

2022ko martxoaren 8an, Eusko Jaurlaritzak programa-kontratu bat onartu zuen, eta bertan konpromisoa hartu zuen 2022tik 2025era bitarteko ekitaldietarako Aurrekontuen Legearen proiektuetan ekarpenak egiteko, ustiapen-gastuei aurre egiteko 147,7 milioi euroko ekarpenarekin, Europako zinema-lanak finantzatzeko ekarpena egiteko 2022tik 2025era, 24,75 milioi euroko zenbatekoarekin, eta 2022tik 2025era bitarteko ibilgetuko inbertsioak finantzatzeko ekarpena egiteko, 52,03 milioi euroko zenbatekoarekin. Euskal Autonomia Erkidegoko 2022ko Aurrekontu Orokorrek 7,8 eta 150,33 milioi euroko inbertsioak eta ustiapen-dirulaguntzak jasotzen dituzte, hurrenez hurren, eta aurrekontu-aldaketak egin ondoren, 11,7 eta 151,77 milioi eurora arte handitu dira hurrenez hurren.

Con fecha 8 de marzo de 2022 el Gobierno Vasco aprobó un Contrato-Programa en el que se compromete a consignar unas aportaciones en los proyectos de la Ley de Presupuestos para los ejercicios 2022 a 2025 con una aportación para cubrir los gastos de explotación del 2022 de 147,7 millones de euros, una aportación para la financiación de obras cinematográficas europeas del 2022 al 2025 por importe de 24,75 millones de euros y una aportación para la financiación de inversiones de inmovilizado del 2022 al 2025 por importe de 52,03 millones de euros. Los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi de 2022 recogen aportaciones para el Ente en concepto de inversiones y subvenciones de explotación por importe de 7,8 y 150,33 millones de euros respectivamente, y que, tras las correspondientes modificaciones presupuestarias, se han incrementado hasta 11,7 y 151,77 millones de euros. Respectivamente

Urteko kontu bateratu hauek eurotan aurkezten dira, hori baita Erakundearen diru funtzionala eta aurkezpen-dirua.

Las presentes cuentas anuales consolidadas se presentan en euros, que es la moneda funcional y de presentación del Grupo.

## (2) Bateratze-perimetroa

## (2) Perímetro de Consolidación

Talde bateratuan sartutako sozietateei buruzko informazioa honako hau zen 2022 eta 2021eko abenduaren 31n:

La información relativa a las sociedades incluidas en la consolidación del Grupo al 31 de diciembre de 2022 y 2021, es la siguiente:

***Mendeko sozietateak-***

***Sociedades dependientes-***

**31.12.2022//*2022.12.31***

| Denominación/ *Izendapena* | Domicilio / Helbidea | Actividad /*Jarduera* | % de Participación Directo e Indirecto<br>*Parte hartzearen % a zuzenekoa eta zeharkakoa* | Sociedad titular de la participación<br>*Parte Hartzearen sozietate titularra* |
|---|---|---|---|---|
| EITB Media, S.A.U. (*) | Bilbao (Bizkaia) | Televisión, Radio, Internet / *Telebista, Irratia, Interne* | 100,00% | Euskal Irrati Telebista-Radio Televisión Vasca |

(*) Sociedad auditada por Mazars Auditores, S.L.P. // Mazars Auditores, S.L.Pek *ikuskatutako sozietatea*

| | | Euros / Euroak | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | Información Contable (*) / *Informazio kontablea* | | | | | | Coste neto de la participación<br>*Parte hartzearen koste garbia* |
| | | | | | Resultado / *Emaitza* | | | |
| Denominación / *Izendapena* | % de Participación Directo e Indirecto<br>*Parte hartzearen %a zuzenekoa eta zeharkakoa* | Capital<br>*Gizarte Funtsa* | Reservas<br>*Erreserbak* | Otras partidas de patrimonio neto<br>*Beste ondare garbiako kontu - salilak* | Explotación<br>*Ustiapena* | Beneficios (pérdidas) del ejercicio **<br>*Ekitaldiko Irabaziak / Galerak* | Patrimonio neto total<br>*Ondare garbia* | |
| EITB Media, S.A.U.(*) | 100,00% | 63.015.307 | (33.701.179) | 35.871.155 | (4.639.170) | (4.670.937) | 60.514.346 | 60.514.346 |

(*) La información contable de esta sociedad ha sido obtenida de sus últimos estados financieros o cuentas anuales.
*Sozietate hauen informazio kontablea beraien azken urteko kontuetatik hartuta dago.*
(**) Los resultados indicados corresponden en todos los casos a operaciones continuadas.
*Adierazitako emaitzak eragiketa jarraituei dagozkie.*

**31.12.2021//*2021.12.31***

| Denominación/ *Izendapena* | Domicilio / Helbidea | Actividad /*Jarduera* | %de Participación Directo e Indirecto *Parte hartzearen %a zuzenekoa eta zeharkakoa* | Sociedad titular de la participación *Parte Hartzearen sozietate titularra* |
|---|---|---|---|---|
| EITB Media, S.A.U. (*) | Bilbao (Bizkaia) | Televisión, Radio, Internet / *Telebista, Irratia, Interne* | 100,00% | Euskal Irrati Telebista-Radio Televisión Vasca |

(*) Sociedad auditada por PKF Attest // *PKF Attest ikuskatutako sozietatea*

| | | Euros / *Euroak* | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | Información Contable (*) / *Informazio kontablea* | | | | | | Coste neto de la participación *Parte hartzearen koste garbia* |
| | | | | | Resultado / *Emaitza* | | | |
| Denominación / *Izendapena* | % de Participación Directo e Indirecto *Parte hartzearen %a zuzenekoa eta zeharkakoa* | Capital *Gizarte Funtsa* | Reservas *Erreserbak* | Otras partidas de patrimonio neto *Beste ondare garbiako kontu - salilak* | Explotación *Ustiapena* | Beneficios (pérdidas) del ejercicio ** *Ekitaldiko Irabaziak / Galerak* | Patrimonio neto total *Ondare garbia* | |
| EITB Media, S.A.U.(*) | 100,00% | 63.015.307 | (29.257.284) | 21.439.811 | (4.423.308) | (4.443.895) | 50.753.939 | 50.602.607 |

(*) La información contable de esta sociedad ha sido obtenida de sus últimos estados financieros o cuentas anuales.
*Sozietate hauen informazio kontablea beraien azken urteko kontuetatik hartuta dago.*
(**) Los resultados indicados corresponden en todos los casos a operaciones continuadas.
*Adierazitako emaitzak eragiketa jarraituei dagozkie.*

Aurrez mendeko gisa xehatutako sozietatearen kalifikazioa Urteko Kontu Bateratuak Formulatzeko Arauetan zehazten da (irailaren 17ko 1159/2010 Errege Dekretuan onartutakoak); zehazki, 2. artikuluko 1.a), 1.b) eta 1.d) ataletan aurreikusitako kasuetan. Izan ere, Erakunde Nagusiak sozietate horietako boto-eskubide gehienak ditu, dela zuzenean, dela zeharka. Sozietate hau integrazio orokorraren metodoaren bitartez bateratu da.

La calificación de la sociedad detallada anteriormente como dependiente viene determinada por los supuestos contemplados en los apartados 1.a), 1.b) y 1.d) del artículo 2 de las Normas para la Formulación de las Cuentas Anuales Consolidadas aprobadas por el Real Decreto 1159/2010, de 17 de septiembre, al poseer, directa o indirectamente, la Entidad Dominante la mayoría de los derechos de voto de dicha sociedad. Dicha sociedad ha sido consolidada mediante el método de integración global.

***Sozietate elkartuak-***

***Sociedades asociadas-***

**31.12.2022 / *2022.12.31*:**

| **Denominación/*Izendapena*** | **Domicilio / *Helbidea*** | **Actividad /*Jarduera*** | **% de Participación Directo e Indirecto** ***Parte hartzearen %a zuzenekoa eta zeharkakoa*** | **Sociedad titular de la participación** ***Parte Hartzearen sozietate titularra*** |
|---|---|---|---|---|
| Expresive Media Proyects, S.L. (*) | Bilbao (Bizkaia) | Publicidad y venta de contenidos | 24,62% | EITB Media, S.A.U. |

(*) Sociedad auditada por KPMG Auditores, S.L.
*(*) KPMG Auditores, S.L. -k ikuskatutako Sozietatea.*

| | | **Euros / Euroak** | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | **Información Contable (*) / Informazio kontablea** | | | | | |
| **Denominación/*Izendapena*** | **% de Participación Directo e Indirecto** ***Parte hartzearen %a zuzenekoa eta zeharkakoa*** | **Capital** ***Gizarte Funtsa*** | **Reservas** ***Erreserbak*** | **Otras partidas de patrimonio neto** ***Beste ondare garbiko kontu-sailak*** | **Beneficios (pérdidas) de ejercicio **** ***Ekitaldiko Irabaziak / Galerak*** | **Patrimonio neto total** ***Ondare Garbia*** | **Coste neto de la participación** ***Parte hartzearen koste garbia*** |
| Expresive Media Proyects, S.L. (*) | 24,62% | 134.000 | 721.516 | - | 564.019 | 1.419.535 | 349.499 |

(*) La información contable de esta sociedad ha sido obtenida de sus últimos estados financieros o cuentas anuales, no auditados a la fecha de formulación de estas cuentas.
*Sozietate honen kontabililitate informazioa azken urteko kontuetatik hartuta dago, kontu hauek egiterakoan ikuskatu gabeak.*
(**) Los resultados indicados corresponden en todos los casos a operaciones continuadas.
*Adierazitako emaitzak eragiketa jarraituei dagozkie.*

**31.12.2021 / *2021.12.31* :**

| **Denominación/*Izendapena*** | **Domicilio / *Helbidea*** | **Actividad /*Jarduera*** | **% de Participación Directo e Indirecto** ***Parte hartzearen %a zuzenekoa eta zeharkakoa*** | **Sociedad titular de la participación** ***Parte Hartzearen sozietate titularra*** |
|---|---|---|---|---|
| Expresive Media Proyects, S.L. (*) | Bilbao (Bizkaia) | Publicidad y venta de contenidos | 24,62% | EITB Media, S.A.U. |

(*) Sociedad auditada por KPMG Auditores, S.L.
*(*) KPMG Auditores, S.L. -k ikuskatutako Sozietatea.*

| | | **Euros / Euroak** | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | **Información Contable (*) / Informazio kontablea** | | | | | |
| **Denominación/*Izendapena*** | **% de Participación Directo e Indirecto** ***Parte hartzearen %a zuzenekoa eta zeharkakoa*** | **Capital** ***Gizarte Funtsa*** | **Reservas** ***Erreserbak*** | **Otras partidas de patrimonio neto** ***Beste ondare garbiko kontu-sailak*** | **Beneficios (pérdidas) de ejercicio **** ***Ekitaldiko Irabaziak / Galerak*** | **Patrimonio neto total** ***Ondare Garbia*** | **Coste neto de la participación** ***Parte hartzearen koste garbia*** |
| Expresive Media Proyects, S.L. (*) | 24,62% | 134.000 | 482.290 | - | 598.065 | 1.214.355 | 298.984 |

(*) La información contable de esta sociedad ha sido obtenida de sus últimos estados financieros o cuentas anuales, no auditados a la fecha de formulación de estas cuentas.
*Sozietate honen kontabililitate informazioa azken urteko kontuetatik hartuta dago, kontu hauek egiterakoan ikuskatu gabeak.*
(**) Los resultados indicados corresponden en todos los casos a operaciones continuadas.
*Adierazitako emaitzak eragiketa jarraituei dagozkie.*

Bestalde, aurrez zerrendatutako sozietate elkartuak halakotzat kalifikatu da, Urteko Kontu Bateratuak Formulatzeko Arauen (irailaren 17ko 1159/2010 Errege Dekretuan onartutakoak) 5.1 artikuluak ezartzen duen moduan; izan ere, sozietate honen kudeaketan eragin nabarmena dute Taldeko sozietateren batek edo batzuek. Eragina dagoela hartzen da, baldin eta taldeko sozietate batek edo batzuek gutxienez boto-eskubide erreal eta potentzialen %20 badute taldekoa ez den sozietate batean. Sozietate hori bateratzeko, baliokidetzan jartzeko prozedura edo partaidetzaren metodoa aplikatu da.

Por su parte, la sociedad asociada relacionada anteriormente ha sido calificada como tal, tal y como establece el artículo 5.1 de las Normas para la Formulación de las Cuentas Anuales Consolidadas aprobadas por el Real Decreto 1159/2010, de 17 de septiembre, por tratarse de una sociedad en la que alguna o varias sociedades del Grupo ejercen una influencia significativa en su gestión, presumiéndose que existe tal influencia cuando una o varias sociedades del grupo poseen, al menos, el 20% de los derechos de voto reales y potenciales de una sociedad que no pertenezca al grupo. Dicha sociedad ha sido consolidada aplicando el procedimiento de puesta en equivalencia o método de la participación.

Bateratze-perimetroak barne hartutako mendeko sozietateek ez dute burtsan kotizatzen.

Las sociedades dependientes incluidas en el perímetro de consolidación no cotizan en Bolsa.

Mendeko sozietateen eta sozietate elkartuen ekitaldi ekonomikoa bat dator urte naturalarekin, eta haien urteko kontuak edo egoera-orri finantzarioak 2022ko abenduaren 31n amaitutako urteko ekitaldiari dagozkie. Ondorioz, bateratze-prozesuan erabili diren sozietateetako urteko kontuek edo egoera-orri finantzarioek Erakunde Nagusiaren aurkezpen-data berari eta aldi berari egiten diote erreferentzia.

El ejercicio económico de las sociedades dependientes y asociadas coincide con el año natural y sus últimas cuentas anuales o estados financieros son las correspondientes al ejercicio anual terminado el 31 de diciembre de 2022. En consecuencia, las cuentas anuales o estados financieros de dichas sociedades utilizados en el proceso de consolidación están referidos a la misma fecha de presentación y el mismo periodo que los de la Entidad dominante.

Mendeko sozietateek eta sozietate elkartuek ez dituzte gaitasun-murrizketa adierazgarriak Erakunde Nagusiari funtsak intsuldatzeko, eskudiruzko dibidendu gisa, edo maileguak itzultzeko. Era berean, sozietate horiek ez dira sailkatu salmentarako mantendutako sozietate gisa.

No existen restricciones significativas a la capacidad de las sociedades dependientes y asociadas para transmitir fondos a la Entidad dominante en forma de dividendos en efectivo o para devolver préstamos. Asimismo, dichas sociedades no tienen la clasificación de mantenidas para la venta.

Ez da mendeko sozietate edo sozietate elkarturik utzi bateratze-perimetrotik kanpo urteko kontu bateratuek adierazi beharreko irudi fidelerako interes adierazgarria ez izateagatik. Horrez gain, ez dago mendeko sozietaterik non Erakunde Nagusiak, zuzenean nahiz zeharka, boto-eskubideen erdia baino gehiago baitu sozietatearen kontrola izan gabe.

No se ha excluido ninguna sociedad dependiente o asociada del perímetro de la consolidación por no tener un interés significativo para la imagen fiel que deben expresar las cuentas anuales consolidadas. Adicionalmente, no existen sociedades dependientes en las que la Entidad dominante posea directa o indirectamente más de la mitad de los derechos de voto sin tener el control de las mismas.

(3) Urteko kontuak aurkezteko oinarriak

### 3.1 Taldeari finantza-informaziorako aplikatu beharreko arau-esparrua-

Taldeari aplikatu beharreko finantza-informazioaren arau-esparrua honako hauetan ezarritakoa da:

a) Merkataritzako Kodea eta merkataritzako gainerako legeria.

b) 1514/2007 Errege Dekretuak onartutako Kontabilitate Plan Orokorra eta haren aldaketak, baita alderdi jakin batzuei buruzko arauak ere, martxoaren 25eko EHA/2010/733 Aginduarekin bat.

c) 1159/2010 Errege Dekretua, irailaren 17koa, Urteko Kontu Bateratuak Formulatzeko Arauak onartzen dituena.

d) Kontabilitate Plan Orokorraren eta haren arau osagarrien garapenean Kontabilitate eta Kontu Ikuskaritzako Institutuak onartutako eta nahitaez bete beharreko arauak.

e) 1/2010 Legegintzako Errege Dekretua, uztailaren 2koa, kapital sozietateei buruzko Legearen testu bategina onartzen duena, eta haren aldaketak.

f) Aplikatzekoak diren Espainiako gainerako kontabilitate-arauak.

### 3.2 Irudi fidela-

2022ko ekitaldiko urteko kontu bateratuak lortzeko, Erakunde Nagusiaren eta sozietate bateratuen (2. oharra) kontabilitate-erregistroak hartu dira abiaburutzat; hala badagokio, barne sartu dira aldi- nahiz balio-homogeneizazio egokia egiteko beharrezko diren doikuntza eta birsailkapenak.

Urteko kontu bateratuak aplikatu beharreko finantza-informazioari buruzko arau-esparruarekin bat etorriz aurkezten dira, eta, bereziki, bertan jasotako kontabilitateko printzipio eta irizpideekin bat etorriz; horrenbestez, Taldearen ondare bateratuaren

(3) Bases de Presentación de las Cuentas Anuales

### 3.1 Marco normativo de información financiera aplicable al Grupo-

El marco normativo de información financiera que resulta de aplicación al Grupo, es el establecido en:

a) El Código de Comercio y la restante legislación mercantil.

b) El Plan General de Contabilidad aprobado por el Real Decreto 1514/2007 y sus modificaciones, así como las normas sobre determinados aspectos de acuerdo con la Orden EHA/733/2010 de 25 de marzo.

c) Real Decreto 1159/2010, de 17 de septiembre, por el que se aprueban las Normas para la Formulación de Cuentas Anuales consolidadas.

d) Las normas de obligado cumplimiento aprobadas por el Instituto de Contabilidad y Auditoría de Cuentas (ICAC) en desarrollo del Plan General de Contabilidad y sus normas complementarias.

e) El Real Decreto Legislativo 1/2010, de 2 de julio, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley de Sociedades de Capital y sus modificaciones.

f) El resto de la normativa contable española que resulta de aplicación.

### 3.2 Imagen fiel-

Las cuentas anuales consolidadas del ejercicio 2022 han sido obtenidas a partir de los registros contables de la Entidad Dominante y de las sociedades consolidadas (Nota 2) e incluyen, en su caso, los ajustes y reclasificaciones necesarios para la adecuada homogeneización temporal y/o valorativa.

Las cuentas anuales consolidadas se presentan de acuerdo con el marco normativo de información financiera que resulta de aplicación y, en particular, con los principios y criterios contables en él contenidos, de forma que muestran la imagen fiel del patrimonio

eta finantza-egoera bateratuaren irudi fidela erakusten dute, bai eta esandako datan amaitutako ekitaldian izan dituen eragiketen emaitza bateratuena eta eskudiru-fluxu bateratuena ere. Erakundearen zuzendari nagusiak 2023ko martxoaren 31an formulatu zituen urteko kontu bateratuak, eta Erakundearen Bazkide Bakarraren onarpenaren pean jarriko dira, aldaketa adierazgarririk gabe onartuko diren ustean.

consolidado y de la situación financiera consolidada del Grupo a la fecha de cierre del ejercicio, así como de los resultados consolidados de sus operaciones y de sus flujos de efectivo consolidados correspondientes al ejercicio anual terminado en dicha fecha. Dichas cuentas anuales consolidadas, que han sido formuladas por el Director General del Ente con fecha 31 de marzo de 2023, se someterán a la aprobación del Socio Único del Ente, estimándose que serán aprobadas sin ninguna modificación significativa.

### *3.3 Kontabilitate-printzipioak-*

2022. ekitaldiko urteko kontu bateratuak egiteko orduan, aplikatu beharreko finantza-informazioaren arau-esparrua bete da; bereziki, 5. oharrean azaldutako erregistro- eta balorazio-arauak bete dira. Erakundearen zuzendari nagusiak nahitaez aplikatu beharreko kontabilitate-printzipio eta -arau guztiak –eragin nabarmena dutenak– kontuan harturik egin ditu urteko kontu bateratuok.

4.j eta 4.m oharretan aipatzen den bezala, Taldeak, irudi fidela erakusteko, ez ditu mozkinen gaineko Kontabilitate Plan Orokorraren 13. xedapen gehigarrian ezarritako irizpideak betetzen, eta ez ditu zerga geroratuagatiko pasiboak aitortzen, etorkizuneko emaitzek sozietateen gaineko zergaren ordainketarik eragingo ez dutela uste denez, kontzeptu-esparruaren pasiboaren definizioa betetzen ez dutelako. Taldeak aurreko ekitaldietan ez du sozietateen gaineko zergaren zenbatekorik likidatu, eta egoera hori etorkizunean ez dela aldatuko uste da. Kontabilitate-tratamendu hori bat dator zerga geroratuen aktiboak ez aitortzearekin, taldeari aplikatu beharreko kontabilitate-esparruko xedapenen arabera.

### *3.3 Principios contables-*

Para la elaboración de las cuentas anuales consolidadas del ejercicio 2022 se ha seguido el marco normativo de información financiera que resulta de aplicación y, especialmente, se han seguido las normas de registro y valoración descritas en la Nota 5. El Director General del Ente ha formulado estas cuentas anuales consolidadas teniendo en consideración la totalidad de los principios y normas contables de aplicación obligatoria que tienen un efecto significativo en dichas cuentas anuales consolidadas.

Tal y como se menciona en la notas 4.j y 4.m el Grupo, con el objeto de mostrar la imagen fiel, no sigue los criterios establecidos en la NRV 13ª del Plan General de contabilidad Impuesto sobre Beneficios y no reconoce pasivos por impuesto diferido en la medida en que, al estimarse que los resultados futuros no originarán pagos por impuesto de sociedades, no cumplen la definición de pasivo del marco conceptual. El Grupo no ha liquidado en ejercicios pasados importe alguno en concepto de impuesto de sociedades y se estima que está circunstancia no se modificará en el futuro. Este tratamiento contable es consistente con el no reconocimiento de activos por impuesto diferido de acuerdo a las disposiciones del marco contable aplicable al Grupo.

### 3.4 Ziurgabetasunaren balorazioaren eta zenbatespenaren alderdi kritikoak-

**a) Kontabilitate-zenbatespen esanguratsuak eta hipotesiak**

2022 ekitaldiko urteko kontu bateratuak prestatzean, Erakundearen zuzendari nagusiaren zenbait irizpen eta zenbatespen erabili dira erregistratuta dauden aktibo, pasibo, sarrera, gastu eta konpromisoetako batzuk kuantifikatzeko. Zenbatespen horiek esperientzia historikoan eta gaur egungo egoeran zentzuzkotzat jotzen diren beste hainbat faktoretan daude oinarrituta. 2022 ekitaldiaren itxieran aztertutako egitateei buruz eskura zegoen informazio onenaren arabera egin badira ere zenbatespenok, baliteke etorkizuneko gertaerek hurrengo ekitaldietan horiek aldatzera behartzea; halakorik gertatuz gero, modu prospektiboan egingo litzateke aldaketa hori.

Etorkizunari buruzko funtsezko hipotesi hauek eta ekitaldi-itxieran ziurgabetasuna zenbatesteari buruzko beste datu esanguratsu hauek berekin dakarte hurrengo ekitaldian aktiboen edo pasiboen balioan aldaketa esanguratsuak izateko arrisku nabarmena:

- Taldeak bizitza baliagarrirako zenbatetsitako urteen arabera amortizatzen ditu bere ibilgetu ukiezina eta ibilgetu materiala; ondorioz, zenbatetsi egin behar du zer-nolako balio-galera izan ohi duten halakoek funtzionamendua, erabilera eta gozamena direla eta, alde batera utzi gabe kontuan hartu behar duela, halaber, eragin lekiekeen zaharkitze tekniko edo komertziala (5.b eta 5.c oharrak).
- Finantza-tresna jakin batzuen balio berreskuragarria (5.f oharra).
- Hornidura jakin batzuen kalkulua eta zenbatespena (5.1. eta 17. oharra).
- Aktibo jakin batzuen narriaduragatik izan daitezkeen galeren ebaluazioa.

### 3.4 Aspectos críticos de la valoración y estimación de la incertidumbre-

**a) Estimaciones contables relevantes e hipótesis**

En la preparación de las cuentas anuales consolidadas correspondientes al ejercicio 2022 se han utilizado juicios y estimaciones realizadas por el Director General del Ente, para cuantificar algunos de los activos, pasivos, ingresos, gastos y compromisos que figuran registrados en ellas. Dichas estimaciones están basadas en la experiencia histórica y en otros factores que se consideran razonables bajo las circunstancias actuales. Si bien las citadas estimaciones se han realizado en función de la mejor información disponible al cierre del ejercicio 2022 sobre los hechos analizados, es posible que acontecimientos que puedan tener lugar en el futuro obliguen a su modificación en los próximos ejercicios, lo que se realizaría, en su caso, de forma prospectiva.

Los supuestos clave acerca del futuro, así como otros datos relevantes sobre la estimación de la incertidumbre en la fecha de cierre del ejercicio, que llevan asociados un riesgo importante que pueda suponer cambios significativos en el valor de los activos y pasivos en el ejercicio siguiente, son los siguientes:

- El Grupo amortiza su inmovilizado intangible y el inmovilizado material en función de los años estimados de vida útil, debiendo en consecuencia estimar la depreciación que normalmente sufren por su funcionamiento, uso y disfrute, sin perjuicio de considerar también la obsolescencia técnica o comercial que pudiera afectarlos (Notas 5b. y 5c.).
- El valor recuperable de determinados instrumentos financieros (Nota 5.f).
- El cálculo y estimación de provisiones (Notas 5.l y 17).
- La evaluación de posibles pérdidas por deterioro de determinados activos.

**b) Kontabilitate-zenbatespenen aldaketak**

Ez da gertatu aldaketa aipagarririk kontabilitate-zenbatespenetan, oraingo ekitaldian eragina duenik edota etorkizuneko ekitaldietan eragina izatea espero denik.

**b) Cambios en estimaciones contables**

No se han producido cambios en estimaciones contables que sean significativos y que afecten al ejercicio actual o que se espere que puedan afectar a los ejercicios futuros.

### 3.5 Jarduneko enpresaren printzipioa-

Taldeak galerak izan ditu azken ekitaldietan. Nolanahi ere, Erakundearen zuzendari nagusiak jarduneko enpresaren printzipioari jarraikiz prestatu ditu urteko kontu bateratu hauek, iritzi baitu ez dagoela Taldearen jardunaren jarraitutasunari buruzko zalantzarik, eta Eusko Jaurlaritzaren aldetik jasotako babes esplizituak bermatu egiten duela betebehar finantzarioei eta bestelakoei aurre egiteko gaitasuna, 2022ko abenduaren 31n balantze bateratuan erregistratuta agertzen diren zenbateko eta epeetan.

### 3.5 Principio de empresa en funcionamiento-

El Grupo ha incurrido en pérdidas durante los últimos ejercicios. No obstante el Director General del Ente ha formulado estas cuentas anuales consolidadas siguiendo el principio de empresa en funcionamiento por entender que no existen dudas sobre la continuidad de la actividad del Grupo por considerar que el apoyo explícito recibido por parte del Gobierno Vasco garantiza su capacidad para atender las obligaciones financieras y de otro tipo, por los importes y plazos que figuran registradas en el balance consolidado al 31 de diciembre de 2022.

2022ko abenduaren 23an Eusko Legebiltzarrak 15/2022 Legea onetsi zuen. Horren bitartez, Euskadiko Autonomia Erkidegorako 2023eko ekitaldirako aurrekontu orokorrak onetsi ziren. Onetsitako aurrekontuan Euskal Irrati Telebista – Radio Televisión Vasca erakunde publikoari ustiapenerako 169.504.500 euroko esleipena egitea aurreikusi zen eta horietatik 162.283.772 euro EITB Media, S.A.U. sozietateari dagozkio (150.329.500 eta 144.014.612 euro hurrenez hurren 2022eko aurrekontuetan).

El 23 de diciembre de 2022 el Parlamento Vasco ha aprobado la Ley 15/2022 por la que se aprueban los Presupuestos Generales para la Comunidad Autónoma de Euskadi para el ejercicio 2023. En el presupuesto aprobado se prevé una asignación al Ente Público Euskal Irrati Telebista - Radio Televisión Vasca de 169.504.500 euros para la explotación, de los cuales 162.283.772 euros corresponden a la sociedad EITB Media, S.A.U. (150.329.500 y 144.014.612 euros, respectivamente, en los presupuestos de 2022).

Era berean, 2023rako onartutako aurrekontu horretan, 9.300.000 euro esleitzea aurreikusten zaio Euskal Irrati Telebista-Radio Televisión Vasca Ente Publikoari, EITB Media SAUn bazkide-ekarpena egiteko.

Igualmente, en el mencionado Presupuesto aprobado para 2023 se prevé una asignación al Ente Público Euskal Irrati Telebista - Radio Televisión Vasca de 9.300.000 euros destinada a realizar una aportación de socio en EITB Media, S.A.U.

### 3.6 Informazioa konparatzea-

Urteko kontu bateratuetan 2022 ekitaldiko zifrak eta aurreko ekitaldikoak daude, konparatzeko. Bertan, balantze bateratuko, galdu-irabazien kontu bateratuko, ondare garbi bateratuan gertatutako aldaketen egoera-orriko eta eskudiru-fluxuen egoera-orriko kontu-sail guztiak agertzen dira. Era berean, 2022 ekitaldiari dagokion memori bateratu honetan jasotako informazioa 202 ekitaldiko informazioarekin alderatuta aurkezten da.

### 3.6 Comparación de la información-

Las cuentas anuales consolidadas presentan a efectos comparativos, con cada una de las partidas del balance consolidado, de la cuenta de pérdidas y ganancias consolidada, del estado de cambios en el patrimonio neto consolidado y del estado de flujos de efectivo, además de las cifras del ejercicio 2022, las correspondientes al ejercicio anterior. Asimismo, la información contenida en esta memoria consolidada referida al ejercicio 2022 se presenta a efectos

comparativos con la información del ejercicio 2021.

2022ko ekitaldian, Taldearen zuzendari nagusiak berriro adierazi ditu 2021eko ekitaldiko zifra konparatiboak, indarreko araudiaren arabera, Eusko Jaurlaritzaren partaidetza nagusia duten erakunde publikoekin kobratu eta ordaindu beharreko saldoak aitortzeko.

En el ejercicio 2022, el Director General del Ente ha re-expresado las cifras comparativas del ejercicio 2021 con la finalidad de reconocer, de acuerdo con la normativa vigente los saldos a cobrar y a pagar con entidades públicas participadas mayoritariamente por Eusko Jaurlaritza-Gobierno Vasco titular único del fondo social del Grupo.

Horren ondorioz, 2021eko balantze Kontsolidatua, 2022ko ekitaldikoarekin batera aurkezten dena konparazio gisa, ez dator bat bazkide bakarrak onartutakoekin.

Como consecuencia de ello, el balance consolidado del 2021 adjunto que se presenta junto con la del ejercicio 2022 a modo comparativo, no coinciden con las aprobadas por el Socio Único.

Aurreko inguruabarrak eragindako urteko kontu kontsolidatu hauen memoria-oharretan, 2021eko ekitaldiari dagokion informazio konparatiboa berradierazi da.

En las notas de memoria de las presentes cuentas anuales consolidadas afectas por la circunstancia anterior, se ha procedido a re-expresar la información comparativa correspondiente al ejercicio 2021.

### *3.7 Kontabilitate-irizpideen aldaketak-*

2022ko ekitaldian ez da aldaketarik gertatu kontabilitate-irizpideetan, 2021eko ekitaldian aplikatutako irizpideekin alderatuta.

### *3.7 Cambios en criterios contables-*

Durante el ejercicio 2022 no se han producido cambios de criterios contables respecto a los criterios aplicados en el ejercicio 2021.

### *3.8 Akatsen zuzenketa-*

Erantsitako urteko kontu bateratuak egiteko orduan ez da errore esanguratsurik antzeman, eta ez dira, beraz, 2021eko ekitaldiko urteko kontu bataratuetan jasotako zenbatekoak berriro adierazi behar izan.

### *3.8 Corrección de errores-*

En la elaboración de las cuentas anuales consolidadas adjuntas no se ha detectado ningún error significativo que haya supuesto la reexpresión de los importes incluidos en las cuentas anuales consolidadas del ejercicio 2021.

### *3.9 Garrantzi erlatiboa-*

Memoria bateratu honetan egoera-orri finantzarioen edo beste gai batzuen kontu-sailei buruz xehatu beharreko informazioa zehaztean, Taldeak, Kontabilitate Plan Orokorraren kontabilitatezko kontzeptu-esparruarekin bat etorriz, kontuan hartu du 2022ko ekitaldiko urteko kontuekin lotutako garrantzi erlatiboa.

### *3.9 Importancia relativa-*

Al determinar la información a desglosar en la presente memoria consolidada sobre las diferentes partidas de los estados financieros u otros asuntos, el Grupo, de acuerdo con el Marco Conceptual de la Contabilidad del Plan General de Contabilidad, ha tenido en cuenta la importancia relativa en relación con las cuentas anuales consolidadas del ejercicio 2022.

(4) **Erakundearen emaitzak aplikatzea**

Erakundearen zuzendari nagusiak Bazkide Bakarraren onarpenaren pean jarriko du 2022ko ekitaldiko galerak "Aurreko ekitaldietako emaitzak" atalera eramatea.

Bestalde, Bazkide Bakarrak onartutako 2021eko emaitzaren banaketa egitean, "Aurreko ekitaldietako emaitzak" epigrafera eraman ziren ekitaldiko galerak.

(5) **Erregistro- eta balorazio-arauak**

Ondoren, 2022 eta 2021eko ekitaldietako urteko kontu bateratuak prestatzean aplikatu diren erregistro- eta balorazio-arau garrantzitsuenak laburbiltzen dira:

***a) Bateratze-printzipioak-***

Hauek izan dira aplikatutako bateratze-printzipio garrantzitsuenak:

**Mendeko sozietateak-**

Mendeko sozietate dira Taldeak, zuzenean nahiz zeharka, bere kontrolpean dituen edo izan ditzakeen sozietate guztiak, kontroltzat ulertuta erakunde baten finantza- eta ustiapen-politikak zuzentzeko ahalmena, haren jarduerengatik irabazi ekonomikoak lortzeko xedez. Taldeak beste erakunde bat kontrolatzen duen ebaluatzeko garaian, kontuan hartzen da une horretan baliagarria edo bihurgarria den boto-eskubide potentzialik dagoen. Mendeko sozietateak lehen bateratzetik aurrera daude bateratuta, eta data horretatik aurrera aitortzen dira diru-sarrera, gastu eta eskudiru-fluxuak urteko kontu bateratuetan. Mendeko sozietateak kontrola galtzen den datatik aurrera geratzen dira bateratzetik kanpo.

Mendekoen eskurapena kontabilizatzeko, eskuratze-metodoa erabiltzen da. Metodo horren arabera, honako hau da eskuratze-kostua: emandako aktiboen, eskuratutako edo hartutako pasiboen eta truke-datan jaulkitako ondare-tresnen arrazoizko balioa, geroko

(4) **Aplicación de Resultados del Ente**

El Director General del Ente someterá para su aprobación al Socio Único el traspaso de las pérdidas del ejercicio 2022 a "Resultados de ejercicios anteriores".

Por su parte, la distribución del resultado del ejercicio 2021, aprobado por el Socio Único, consistió en el traspaso de las pérdidas del ejercicio al epígrafe "Resultados de ejercicios anteriores".

(5) **Normas de Registro y Valoración**

A continuación se resumen las normas de registro y valoración más significativas que se han aplicado en la preparación de las cuentas anuales consolidadas de los ejercicios 2022 y 2021:

***a) Principios de consolidación-***

Los principios de consolidación más importantes aplicados han sido los siguientes:

**Sociedades dependientes-**

Dependientes son todas las entidades sobre las que el Grupo ostenta o pueda ostentar, directa o indirectamente, el control, entendiendo éste como el poder de dirigir las políticas financieras y de explotación de una entidad con la finalidad de obtener beneficios económicos de sus actividades. A la hora de evaluar si el Grupo controla otra entidad se toma en consideración la existencia de derechos potenciales de voto que sean en ese momento ejercitables o convertibles. Las sociedades dependientes se consolidan a partir de la primera consolidación, reconociéndose a partir de dicha fecha en las cuentas anuales consolidadas los ingresos, gastos y flujos de efectivo. Las sociedades dependientes se excluyen de la consolidación desde la fecha en que se pierde el control.

Para contabilizar la adquisición de dependientes se utiliza el método de adquisición. En virtud de dicho método el coste de adquisición es el valor razonable de los activos entregados, de los pasivos incurridos o asumidos y de los instrumentos de patrimonio emitidos en la

gertakizunen mende edo zenbait baldintzaren mende dagoen edozein kontingente-kontraprestazioren arrazoizko balioa.

fecha de intercambio, el valor razonable de cualquier contraprestación contingente que dependa de eventos futuros o del cumplimiento de ciertas condiciones.

Mendeko sozietateen aktiboak, pasiboak, diru-sarrerak eta gastuak, eta eskudiru-fluxuak integrazio orokorreko metodoa aplikatuz gehitzen dira urteko kontu bateratuetan. Metodo horren arabera:

Los activos, pasivos, ingresos y gastos y flujos de efectivo de las sociedades dependientes se incorporan en las cuentas anuales consolidadas aplicando el método de integración global, según el cual:

- Hala badagokio, beharrezko doikuntza eta birsailkapenak egiten dira taldearen sozietateetan, barne-eragiketek eta urteko kontu bateratuen egiturak aldi- eta balio-homogeneizazioa egokia dutela ziurtatzeko, agregazioa egin ahal izateko moduan.

- En su caso, se realizan los ajustes y reclasificaciones necesarios en las sociedades del grupo para asegurar la adecuada homogeneización temporal, valorativa, de las operaciones internas y de la estructura de las cuentas anuales de las sociedades consolidadas para realizar la agregación.

- Sozietate nagusiaren mendeko sozietatearen ondare-tresnak adierazten dituzten kontabilitate-balioak eskuratze-datan konpentsatzen dira, partaidetza horiei egotz dakiekeen ondare garbiko kontu-sailen parte proportzionalarekin (inbertsioa / ondare garbia ezabatzea). Oro har, eskuratze-metodoa aplikatzearen ondorioz ateratzen diren balioetan oinarrituta egiten da konpentsazioa.

- Los valores contables representativos de los instrumentos de patrimonio de la sociedad dependiente que la sociedad dominante posea se compensan, en la fecha de adquisición, con la parte proporcional de las partidas de patrimonio neto de la sociedad dependiente atribuible a dichas participaciones (eliminación inversión-patrimonio neto). Con carácter general, esta compensación se realiza sobre la base de los valores resultantes de aplicar el método de adquisición.

- Oro har, mendeko sozietateetatik eskuratutako aktibo identifikagarriak eta hartutako pasiboak eskuratze-datan duten arrazoizko balioan baloratzen dira.

- Con carácter general, los activos identificables adquiridos y pasivos asumidos de las sociedades dependientes se valoran por su valor razonable en la fecha de adquisición.

- Eskuratze-datan diferentzia positiboa baldin badago, batetik, eskuratutako sozietatearen kontrola lortzeko transferitutako kontraprestazioaren (gehi aurretiko edozein partaidetzak eskuratze-datan zuen arrazoizko balioa, ondoz ondoko partaidetza-eskurapenak edo etapa bidezko konbinazioak badira) eta, bestetik, mendeko sozietatearen kapitaleko partaidetzaren adierazgarri den ondare garbiaren parte proportzionalaren artean, Baterakuntzako Merkataritzako Fondo gisa aitortzen da. Salbuespen gisa diferentzia negatiboa bada, galdu-irabazien kontuan aitortzen da,

- La diferencia en la fecha de adquisición entre la contraprestación transferida para obtener el control de la sociedad adquirida (más en el caso de adquisiciones sucesivas de participaciones, o combinaciones por etapas, el valor razonable en la fecha de adquisición de cualquier participación previa) y la parte proporcional del patrimonio neto representativa de la participación en el capital de la sociedad dependiente se reconoce, en caso de ser positiva, como Fondo de Comercio de consolidación. En el supuesto excepcional de que la diferencia sea negativa, dicho exceso se reconoce como

ekitaldiko emaitza positibo gisa. Nolanahi ere, aipatutako diru-sarrera aitortu aurretik, berriz ebaluatzen dira diferentzia eragiten duten zenbatekoak.

un resultado positivo del ejercicio en la cuenta de pérdidas y ganancias consolidada. No obstante, antes de reconocer el citado ingreso se evalúan nuevamente los importes que dan lugar a dicha diferencia.

- Taldeko sozietateen aktiboaren eta pasiboaren elementuak balantze bateratuan gehitzen dira, sozietate horien balantzeetan agertzen diren balorazio berberean, salbu eta eskuratze-datan eskuratutako aktiboak eta hartutako pasiboak; izan ere, horiek eskuratze-datan zuten arrazoizko balioan oinarrituta gehitzen dira balantze bateratuan, data horretatik aurrera izandako amortizazio eta narriadurako kontuan hartu ondoren.

- Los elementos del activo y del pasivo de las sociedades del grupo se incorporan al balance consolidado, con las mismas valoraciones con que figuran en los respectivos balances de dichas sociedades, excepto los activos adquiridos y pasivos asumidos en la fecha de adquisición que se incorporan al balance consolidado sobre la base de su valor razonable a la fecha de adquisición, una vez consideradas las amortizaciones y deterioros producidos desde dicha fecha.

- Mendeko sozietateen diru-sarrera, gastu eta eskudiru-fluxuak urteko kontu bateratuetan gehitzen dira.

- Los ingresos y gastos y flujos de efectivo de las sociedades dependientes, se incorporan a las cuentas anuales consolidadas.

- Ezabatu egiten dira bateratzean barne hartutako sozietateen arteko kreditu eta zorrak, eta sozietate horien arteko transakzioei dagozkien diru-sarrera eta gastuak eta eskudiru-fluxuak (talde barruko kontu-sailak). Barne-eragiketen ondorioz sortutako emaitzak ere ezabatzen dira, eta taldekoak ez diren hirugarren batzuen aurrean egiten diren arte geroratzen.

- Se eliminan los créditos y deudas entre sociedades comprendidas en la consolidación, los ingresos y los gastos y los flujos de efectivo relativos a las transacciones entre dichas sociedades (partidas intragrupo). Los resultados generados como consecuencia de operaciones internas se eliminan y difieren hasta que se realizan frente a terceros ajenos al grupo.

- Integrazio orokorreko metodoaren bitartez bateratutako mendeko sozietateen erreserbak, eskuratze-datatik aurrera sortu badira, ondare garbi bateratuaren barruan aurkezten dira, hala badagokio, balantze bateratuko «Funts propioak – Erreserbak – Integrazio globalarengatik kontsolidatutako sozietateetako erreserbak» epigrafean.

- Las reservas de las sociedades dependientes consolidadas por el método de integración global que se generen a partir de la fecha de adquisición, se presentan, en su caso, dentro del patrimonio neto consolidado en el epígrafe "Fondos propios – Reservas – Reservas en sociedades consolidadas por integración global" del balance consolidado.

- Kontrola lortutakoan, sozietate nagusiak mendeko sozietatean duen partaidetza aldatzen duten ondorengo eragiketek ez badakarte, murriztapena izanez gero, kontrol galerarik, ondare propioaren tituluekin egindako eragiketatzat hartzen dira kontu bateratuetan. Ondorioz, arau hauek aplikatzen dira inbertsioa / ondare

- Una vez que se ha obtenido el control, las operaciones posteriores que dan lugar a la modificación de la participación de la sociedad dominante en la sociedad dependiente, sin que, en caso de reducción, supongan una pérdida de control, se consideran en las cuentas consolidadas como una operación con

garbia ezabatzeko eta kanpo-bazkideen kalkulua egiteko:

a) Ez da aldatzen baterakuntzaren merkataritza-fondoko zenbatekoa edo aitortutako diferentzia negatiboa, ezta balantze bateratuko beste aktibo edo pasibo batzuena ere.

b) Balantze bateratuan mendeko sozietatearen «Balio-aldaketen ondoriozko doikuntzak» eta «Jasotako diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak» ataletan agertzen diren zenbatekoak, hala badagokio, eragiketa gauzatutakoan taldeko sozietateek haren kapitalean duten partaidetza-ehunekoaren arabera zenbatzen dira.

c) Hala behar izanez gero, a) eta b) letretan xedatutakoa betetzeko egin beharreko doikuntzak aldaketa eragiten du bere partaidetza murrizten edo handitzen duen sozietatearen erreserbetan.

2. oharrean xehatzen dira integrazio orokorreko metodoaren bitartez bateratze-perimetroan sartutako mendeko sozietateen identifikazio-datuak.

**Sozietate elkartuak-**

Sozietate elkartuak dira taldeko sozietateren baten eragin nabarmenaren pean dauden sozietate guztiak. Eragin nabarmena dagoela ulertzen da, baldin eta Taldeak sozietatean partaidetza badu, eta haren finantza- eta ustiapen-politiketan esku hartzeko ahalmena, baina haren gaineko kontrola edo baterako kontrola izatera iritsi gabe.

Sozietate elkartuak urteko kontu bateratuetan sartzeko, baliokidetzan jartzeko prozedura edo partaidetzaren metodoa aplikatu da. Lehenbiziko aldiz aplikatzen denean baliokidetzan jartzeko prozedura, sozietate elkartuetan egindako inbertsioak honela baloratzen dira balantze bateratuan: taldeko sozietateen inbertsioaren ehunekoak, inbertsioaren unean, sozietatearen ondare garbian ordezkatzen duen zenbatekoan.

títulos de patrimonio propio. En consecuencia, en la eliminación inversión-patrimonio neto y en el cálculo de los socios externos, se aplican las siguientes reglas:

a) No se modifica el importe del fondo de comercio de consolidación o diferencia negativa reconocida, ni el de otros activos o pasivos del balance consolidado.

b) El importe de los «ajustes por cambios de valor» y de las «subvenciones, donaciones y legados recibidos» de la sociedad dependiente, que, en su caso luzcan en el balance consolidado, se cuantifica en función del porcentaje de participación que las sociedades del grupo posean en el capital de aquella, una vez realizada la operación.

Banatutako dibidenduak, zalantzarik gabe, eskuratze-data baino lehen sortutako emaitzetatik badatoz, partaidetuak eskuratzetik sortutako mozkinak baino zenbateko handiagoak banatu direlako, ez dira diru-sarrera gisa aitortzen, eta inbertsioaren kontabilitate-balioa gutxitzen dute.

***Aktibo finantziarioen baja-***

Aktibo finantzario bati edo haren zati bati baja ematen dio Taldeak, aktibo finantzarioaren diru-fluxuen gaineko kontratu-eskubideak amaitzen direnean edo laga direnean, eta funtsean transferitu direnean haren jabetzari datxezkion arriskuak eta onurak, inguruabar horietan ebaluatzen baita Taldearen esposizioa, lagapenaren aurretik eta ondoren, transferitutako aktiboaren diru-fluxu garbien zenbatekoen eta egutegiaren aldaketarekin alderatzen. Aktibo finantzarioaren jabetzari datxezkion arriskuak eta mozkinak modu nabarmenean laga direla ulertzen da, baldin eta aldaketa horren eraginpean egotea ez bada adierazgarria aktibo finantzarioarekin lotutako etorkizuneko diru-fluxu garbien balio eguneratuaren aldaketa osoari dagokionez, hala nola aktiboen salmenta irmoak, kreditu komertzialen lagapenak "faktoring" eragiketetan non sozietateak ez duen ez kreditu arriskurik ez interes arriskurik atxikitzen, berrerosteko ituna duten aktibo finantzarioen salmentak, arrazoizko balioan eta finantza-aktiboen titulizazioak, baldin eta enpresa lagatzaileak mendeko finantzaketarik atxikitzen ez badu, inolako bermerik ematen ez badu edo bestelako arriskurik bere gain hartzen ez badu.

Taldeak arriskuak eta onurak funtsean laga edo atxiki ez baditu, aktibo finantzarioari baja emango zaio haren kontrola atxiki ez duenean. Egoera hori lagapen-hartzaileak lotu gabeko hirugarren bati aktibo hori osorik eta baldintzarik ezarri gabe transmititzeko duen alde bakarreko gaitasunaren araberakoa izango da. Sozietateak aktiboaren kontrolari eusten badio, sozietateak lagatako aktiboaren balio-aldaketen eraginpean dagoen zenbatekoan kontabilizatzen jarraitzen du, hau da, inplikazio jarraituan, eta pasibo elkartu bat aitortzen du.

Aktibo finantzarioari baja ematen zaionean, transakzio-kostu egozgarrietatik jasotako

ingresos en la cuenta de pérdidas y ganancias.

Si los dividendos distribuidos proceden inequívocamente de resultados generados con anterioridad a la fecha de adquisición porque se han distribuido importes superiores a los beneficios generados por la participada desde la adquisición, no se reconocen como ingresos, y minoran el valor contable de la inversión.

***Baja de activos financieros-***

El Grupo da de baja un activo financiero, o parte del mismo, cuando expiran o se han cedido los derechos contractuales sobre los flujos de efectivo del activo financiero, y se han transferido sustancialmente los riesgos y beneficios inherentes a su propiedad, en circunstancias que se evalúan comparando la exposición del Grupo, antes y después de la cesión, a la variación en los importes y en el calendario de los flujos de efectivo netos del activo transferido. Se entiende que se han cedido de manera sustancial los riesgos y beneficios inherentes a la propiedad del activo financiero cuando su exposición a tal variación deja de ser significativa en relación con la variación total del valor actual de los flujos de efectivo futuros netos asociados con el activo financiero tal como las ventas en firme de activos, las cesiones de créditos comerciales en operaciones de "factoring" en las que la Sociedad no retenga ningún riesgo de crédito ni de interés, las ventas de activos financieros con pacto de recompra por su valor razonable y las titulizaciones de activos financieros en las que la empresa cedente no retenga financiaciones subordinadas ni conceda ningún tipo de garantía o asuma algún otro tipo de riesgo).

Si el Grupo no ha cedido ni retenido sustancialmente los riesgos y beneficios, el activo financiero se da de baja cuando no ha retenido el control del mismo, situación que se determina dependiendo de la capacidad unilateral del cesionario para transmitir dicho activo, íntegramente y sin imponer condiciones, a un tercero no vinculado. Si la Sociedad mantiene el control del activo, continúa reconociéndolo por el importe al que la Sociedad está expuesto a las variaciones de valor del activo cedido, es decir, por su implicación continuada, y reconoce un pasivo asociado.

Cuando el activo financiero se da de baja, la diferencia entre la contraprestación recibida neta

kontraprestazio garbiaren (lortutako edozein aktibo berri kontuan hartuta, bere gain hartutako edozein pasibo berri kenduta) eta aktibo finantzarioaren kontabilitate-balioaren arteko aldeak aktibo horri baja ematean sortutako irabazia edo galera zehazten du, eta hori baja ematen zaion ekitaldiko emaitzaren parte da. Halaber, zuzenean ondare garbian metatutako edozein irabazi edo galera galdu-irabazien kontura birsailkatzen da.

Aitzitik, Taldeak ez die baja ematen aktibo finantzarioei, eta pasibo finantzario bat aitortzen du, jasotako kontraprestazioaren zenbateko berekoa, aktibo finantzarioen lagapenetan, baldin eta aktibo finantzarioei atxikitzen bazaizkie funtsean bere jabetzari datxezkion arriskuak eta mozkinak, hala nola efektuen deskontuak, errekurtsodun faktoringak, prezio finko batean edo salmenta-prezioan gehi interes batean berrerosteko ituna duten aktibo finantzarioen salmentak eta finantza-aktiboen titulizazioak, baldin eta enpresa lagatzaileak mendeko finantzazioak edo espero diren galera guztiak bereganatzen dituen bestelako bermeak atxikitzen baditu.

***Pasibo finantziarioak***

Jaulkitako, egindako edo bere gain hartutako finantza-tresnak pasibo finantzario gisa sailkatzen dira, osorik edo zati batean, baldin eta, haien errealitate ekonomikoaren arabera, Taldeari kontratuzko betebehar bat badakarkio, zuzena edo zeharkakoa, eskudirua edo beste aktibo finantzario bat emateko, edo hirugarrenekin aktibo edo pasibo finantzarioak trukatzeko, baldintza potentzialki kaltegarrietan, hala nola jaulkitzailearen nahitaezko berrerosketa aurreikusten duen finantza-tresna bat, edo edukitzaileari eskubidea ematen diona jaulkitzaileari erreskatea eskatzeko data eta zenbateko jakin edo erabakigarri batean, edo aldez aurretik zehaztutako ordainsaria jasotzeko, betiere mozkin banagarriak badaude, hala nola erreskatatu daitezkeen akzio jakin batzuk eta botorik gabeko akzio edo partaidetzak.

***Sailkapena eta balioztapena-***

Baloratzeko unean, Taldeak dituen pasibo finantzarioak kategoria honetan sailkatzen dira:

de los costes de transacción atribuibles, (considerando cualquier nuevo activo obtenido menos cualquier nuevo pasivo asumido), y el valor en libros del activo financiero, determina la ganancia o pérdida surgida al dar de baja dicho activo, que forma parte del resultado del ejercicio en que ésta se produce. Asimismo, cualquier ganancia o pérdida acumulada directamente en el patrimonio neto se reclasifica a la cuenta de pérdidas y ganancias.

Por el contrario, el Grupo no da de baja los activos financieros, y reconoce un pasivo financiero por un importe igual a la contraprestación recibida, en las cesiones de activos financieros en las que se retenga sustancialmente los riesgos y beneficios inherentes a su propiedad, tales como en el descuento de efectos, el factoring con recurso, las ventas de activos financieros con pacto de recompra a un precio fijo o al precio de venta más un interés y las titulizaciones de activos financieros en los que la empresa cedente retenga financiaciones subordinadas u otro tipo de garantías que absorban sustancialmente todas las pérdidas esperadas.

***Pasivos financieros***

Los instrumentos financieros emitidos, incurridos o asumidos se clasifican como pasivos financieros, en su totalidad o en una de sus partes, siempre que de acuerdo con su realidad económica supongan para el Grupo una obligación contractual, directa o indirecta, de entregar efectivo u otro activo financiero, o de intercambiar activos o pasivos financieros con terceros en condiciones potencialmente desfavorables, tal como un instrumento financiero que prevea su recompra obligatoria por parte del emisor, o que otorgue al tenedor el derecho a exigir al emisor su rescate en una fecha y por un importe determinado o determinable, o a recibir una remuneración predeterminada siempre que haya beneficios distribuibles, como serían determinadas acciones rescatables y acciones o participaciones sin voto.

***Clasificación y valoración-***

A efectos de su valoración, los pasivos financieros que posee el Grupo se clasifican en la siguiente categoría:

3. ***Pasibo finantziarioak kostu amortizatuan:***

Taldeak kategoria honetan sailkatzen ditu pasibo finantzario guztiak, galdu-irabazien bidez arrazoizko balioan baloratu behar direnean izan ezik.

Oro har, kategoria honetan sartzen dira merkataritza-eragiketengatiko zorrak (ordainketa geroratua duen enpresaren trafiko-eragiketengatik ondasunak eta zerbitzuak erostean sortzen diren finantza-pasiboak) eta merkataritzakoak ez diren eragiketengatiko zorrak (tresna eratorriak izan gabe, merkataritza-jatorria ez duten finantza-pasiboak, Taldeak jasotako mailegu- edo kreditu-eragiketetatik datozenak).

Kategoria honetan sartutako pasibo finantzarioak arrazoizko balioaren arabera balioesten dira hasieran; kontrako ebidentziarik ezean, transakzioaren prezioa da, hau da, jasotako kontraprestazioaren arrazoizko balioa, zuzenean egotz dakizkiekeen transakzio-kostuen arabera doituta. Ondoren, finantza-pasibo horiek kostu amortizatuaren arabera baloratzen dira. Sortutako interesak galdu-irabazien kontuan kontabilizatzen dira, interes-tasa efektiboaren metodoa aplikatuta.

Hala ere, urtebete edo gutxiagoko epemuga duten eta kontratuzko interes-tasarik ez duten merkataritza-eragiketengatiko zorrak eta partaidetzen gainean hirugarrenek eskatutako ordainketak, zeinen zenbatekoa epe laburrean ordaintzea espero baita, balio nominalaren arabera baloratzen dira, diru-fluxuak ez eguneratzearen ondorioa esanguratsua ez denean.

***Pasibo finantziarioen baja-***

Taldeak pasibo finantzario bati edo horren zati bati baja ematen dio betebeharra desagertzen denean; hau da, ordaindu, ezereztu edo iraungi denean.

Taldearen eta kontrapartearen artean zor-tresnen trukea gertatzen bada, betiere horiek funtsean baldintza desberdinak badituzte, jatorrizko pasibo finantzarioaren baja erregistratzen da eta bere arrazoizko balioan sortzen den pasibo finantzario berria aitortzen da.

3. ***Pasivos financieros a coste amortizado:***

El Grupo clasifica todos los pasivos financieros en esta categoría excepto cuando deben valorarse a valor razonable con cambios en la cuenta de pérdidas y ganancias.

Con carácter general, se incluyen en esta categoría los débitos por operaciones comerciales (aquellos pasivos financieros que se originan en la compra de bienes y servicios por operaciones de tráfico de la empresa con pago aplazado), y los débitos por operaciones no comerciales (aquellos pasivos financieros que, no siendo instrumentos derivados, no tienen origen comercial, sino que proceden de operaciones de préstamo o crédito recibidos por el Grupo).

Los pasivos financieros incluidos en esta categoría se valoran inicialmente por su valor razonable, que, salvo evidencia en contrario, es el precio de la transacción, que equivale al valor razonable de la contraprestación recibida ajustado por los costes de transacción que les sean directamente atribuibles. Posteriormente estos pasivos financieros se valoran por su coste amortizado. Los intereses devengados se contabilizan en la cuenta de pérdidas y ganancias aplicando el método del tipo de interés efectivo.

No obstante, los débitos por operaciones comerciales con vencimiento no superior a un año y que no tienen un tipo de interés contractual, así como los desembolsos exigidos por terceros sobre participaciones, cuyo importe se espera pagar en el corto plazo, se valoran por su valor nominal, cuando el efecto de no actualizar los flujos de efectivo no es significativo.

***Baja de pasivos financieros-***

El Grupo da de baja un pasivo financiero, o parte del mismo, cuando la obligación se ha extinguido; es decir, cuando ha sido satisfecha, cancelada o ha expirado.

Si se produce un intercambio de instrumentos de deuda entre el Grupo y la contraparte, siempre que estos tienen condiciones sustancialmente diferentes, se registra la baja del pasivo financiero original y se reconoce el nuevo pasivo financiero que surja a su valor razonable. De la

Era berean, pasibo finantzario baten egungo baldintzen funtsezko aldaketa erregistratzen da. Pasibo finantzarioari edo pasibo horren zatiari baja eman zaion kontabilitate-balioaren eta ordaindutako kontraprestazioaren arteko aldea gertatzen den ekitaldiko galdu-irabazien kontuan kontabilizatuko da, kostu edo komisioak barne, zeinetan jasotzen baita lagatako edozein aktibo, onartutako eskudirua edo pasiboa ez dena.

Funtsean baldintza desberdinak ez dituzten zor-tresnen trukearen kasuan, jatorrizko pasibo finantzarioari ez zaio balantzean baja ematen, eta egindako edozein transakzio- edo komisio-kostuk pasibo finantzarioaren zenbatekoa liburuetan doitzen du. Data horretatik aurrera, pasibo finantzarioaren kostu amortizatua zehazteko, pasibo finantzarioaren kontabilitate-balioa eta baldintza berrien arabera ordaindu beharreko diru-fluxuak berdintzen dituen interes-tasa efektiboa aplikatzen da.

Ondorio horietarako, Taldeak uste du kontratuen baldintzak funtsean desberdinak direla, besteak beste, kontratu berriaren diru-fluxuen balio eguneratua, ordaindutako edozein komisio barne, jasotako edozein komisioren garbia, jatorrizko kontratuko diru-soberakinen fluxuen balio eguneratuaren ehuneko hamar, gutxienez, desberdina denean, bi zenbatekoak azken horren interes-tasa efektiboaren arabera eguneratuta. Hala ere, Taldeak faktore kualitatiboak ere hartzen ditu kontuan baldintzak funtsean desberdinak diren ebaluatzeko.

***Arrazoizko balioa***

Arrazoizko balioa aktibo baten salmentagatik jasoko litzatekeen prezioa da, edo balorazio-datan merkatuko parte-hartzaileen artean antolatutako transakzio baten bidez pasibo bat transferitzeko edo ezeztatzeko ordainduko litzatekeena. Arrazoizko balioa zehazteko, ez da inolako kenketarik egin behar besterentzearen edo beste bide batzuetatik xedatzearen ondorioz egin daitezkeen transakzio-kostuengatik. Ez da inola ere arrazoizko baliotzat hartuko bortxazko, presazko edo nahigabeko likidazio-egoera baten ondorioz egindako transakzio baten emaitza dena.

misma forma se registra una modificación sustancial de las condiciones actuales de un pasivo financiero. La diferencia entre el valor en libros del pasivo financiero o de la parte del mismo que se haya dado de baja y la contraprestación pagada incluidos los costes o comisiones en que se incurra y en la que se recoge asimismo cualquier activo cedido diferente del efectivo o pasivo asumido, se reconoce en la cuenta de pérdidas y ganancias del ejercicio en que tenga lugar.

En el caso de un intercambio de instrumentos de deuda que no tienen condiciones sustancialmente diferentes, el pasivo financiero original no se da de baja del balance y cualquier coste de transacción o comisión incurrida ajusta el importe en libros del pasivo financiero. A partir de esa fecha, el coste amortizado del pasivo financiero se determina aplicando el tipo de interés efectivo que iguale el valor en libros del pasivo financiero con los flujos de efectivo a pagar según las nuevas condiciones.

A estos efectos, el Grupo considera que las condiciones de los contratos son sustancialmente diferentes, entre otros casos, cuando el valor actual de los flujos de efectivo del nuevo contrato, incluida cualquier comisión pagada, neta de cualquier comisión recibida, difiere al menos en un diez por ciento del valor actual de los flujos de efectivo remanentes del contrato original, actualizados ambos importes al tipo de interés efectivo de este último. No obstante, el Grupo considera igualmente factores cualitativos para evaluar si las condiciones son sustancialmente diferentes.

***Valor razonable***

El valor razonable es el precio que se recibiría por la venta de un activo o se pagaría para transferir o cancelar un pasivo mediante una transacción ordenada entre participantes en el mercado en la fecha de valoración. El valor razonable se determina sin practicar ninguna deducción por los costes de transacción en que pudiera incurrirse por causa de enajenación o disposición por otros medios. No tiene en ningún caso el carácter de valor razonable el que sea resultado de una transacción forzada, urgente o como consecuencia de una situación de liquidación involuntaria.

Oro har, arrazoizko balioan baloratutako finantza-tresnen balorazioan, Taldeak merkatuko balio fidagarri bati erreferentzia eginez kalkulatzen du hura, eta arrazoizko balio horren erreferentziarik onena merkatu aktibo batean kotizatutako prezioa da. Merkatu aktiborik ez duten tresnen kasuan, balorazio-ereduak eta -teknikak aplikatuz lortzen da arrazoizko balioa.

Con carácter general, en la valoración de instrumentos financieros valorados a valor razonable, el Grupo calcula éste por referencia a un valor fiable de mercado, constituyendo el precio cotizado en un mercado activo la mejor referencia de dicho valor razonable. Para aquellos instrumentos respecto de los cuales no exista un mercado activo, el valor razonable se obtiene, en su caso, mediante la aplicación de modelos y técnicas de valoración.

Eragiketa komertzialengatiko eta ez-komertzialengatiko kredituen eta zorren liburu-balioa arrazoizko baliora hurbiltzen dela onartzen da.

Se asume que el valor en libros de los créditos y débitos por operaciones comerciales y no comerciales se aproxima a su valor razonable.

### *g) Izakinak-*

Erantsitako balantze bateratuaren epigrafe honetan, Taldeak parte hartzen duen ekoizpenekin lotutako kostuak jasotzen dira, honela zehaztuta:

*Ekoizpen propioak-*

Eskuratze- nahiz ekoizpen-kostuan erregistratzen dira, eta horiek barne hartzen dituzte, bai hirugarren batzuek programak ekoizteagatik fakturatutako eta baliabideak eskuratzeagatik izandako kanpo-gastuak, bai ekoizpenaren barne-kostuak. Azken horiek kalkulatzeko, aurrez ezarritako barne-tasak aplikatzen dira, ekoizpenean erabilitako baliabide operatiboek emandako denboraren arabera. Programak ekoizteko prozesuan izandako kostuak galdu-irabazien kontu bateratuko hainbat epigrafetan erregistratzen dira, zer-nolakoak diren, eta balantze bateratuko «Izakinak – Produktu bukatuak» kontuan gehitzen dira, galdu-irabazien kontu bateratuko «Amaituta eta egite-bidean diren produktuen izakinen aldakuntza» kontuan abonatuz. Programa horien kontsumoa galdu-irabazien kontu bateratuan erregistratzen da, igorritako emanaldi kopuruaren arabera, jarraian adierazitako ehunekoekin bat:

- Sailetarako, lehen emanaldian izakinen bajaren %60 ematen da, eta bigarren emanaldian %40.

### *g) Existencias-*

Este epígrafe del balance consolidado adjunto recoge los costes relacionados con las producciones en las que participa el Grupo, determinados de la siguiente manera:

*Producciones propias*

Se registran a su coste de adquisición y/o producción, que incluyen tanto los costes externos facturados por terceros por la producción de los programas y por la adquisición de recursos como los costes internos de producción, los cuales se calculan mediante la aplicación de unas tasas internas preestablecidas en función del tiempo de los recursos operativos utilizados en la producción. Los costes incurridos en el proceso de producción de los programas se registran en los diferentes epígrafes de la cuenta de pérdidas y ganancias consolidada en función de su naturaleza y se incorporan a la cuenta "Existencias – Productos terminados" del balance consolidado mediante abono en la cuenta "Variación de existencias de productos terminados y en curso de fabricación" de la cuenta de pérdidas y ganancias consolidada. El consumo de estos programas se registra en la cuenta de pérdidas y ganancias consolidada en función del número de emisiones (pases) realizados, de acuerdo con los porcentajes indicados a continuación:

- Para las series, la baja de existencias se da el 60% en la primera emisión y el 40% en la segunda emisión.

- Gainerako ekoizpenetarako, lehen emanaldia igortzean ekoizpenaren kostuaren %100 ematen zaio baja.

*Besteren ekoizpenak-*

Eskuratze-kostuan baloratzen dira, eta funtsean kostu hauek hartzen dituzte barne: materialen kostua, igorpen-eskubideak (royalties) eta bikoizteko eta azpitituluak jartzeko gastuak. Horietan, balio handiagotzat hartzen da barnekoak diren zenbait lanetarako egindako kostua; adibidez, transkripzioa, ikuskaldia eta beste batzuk.

Taldeak, lehen emanaldian, besteren ekoizpenen kostuaren %60ri ematen dio baja; %30ri bigarren emanaldian, eta gainerako %10 hirugarrenean. Besteren ekoizpenak kapituluka ematen badira, izakinak dagokion zati proportzionalean ezabatzen dira, eta aurrez aipatutako proportzioan. Era berean, Taldeak baja ematen die besteren ekoizpenetako izakinei igorpen-eskubideak igorri aurretik iraungi badira.

*Koprodukzio propioak-*

Kontzeptu honetan beste telebista-kate batzuekin egindako koprodukzioak sartzen dira. Balorazioan, hirugarrenek ekoizpen prozesuan taldeari egindako fakturazioa eta egotz daitezkeen zuzeneko eskulanaren kostuak sartzen dira.

*Enkargu bidezko ekoizpenak-*

Beste enpresa batzuek igortzeko eta ondoren merkaturatzeko egin dituzten produktuen eskurapenak eskuratze-kostuan edo zenbatetsitako gauzatze-balio garbian baloratzen dira, bietako zein den txikiena.

Koprodukzio propioak eta enkargu bidezko ekoizpenak galdu-irabazien kontu bateratuan erregistratzen dira, ekoizpen propioetarako erabiltzen den metodo berari jarraikiz.

*Kontsumorako eta berriz emateko materialak-*

FIFO (lehen sarrera, lehen irteera) metodoa erabiliz baloratzen dira.

- Para el resto de producciones, se da de baja el 100 % del coste de la producción al realizar la emisión del primer pase.

*Producciones ajenas-*

Se valoran a su coste de adquisición, que incluye, básicamente, el coste de materiales, derechos de emisión (royalties) y los gastos de doblaje y subtitulación, considerándose, como un mayor valor, el coste incurrido en determinados trabajos de carácter interno, tales como transcripción, visionado y otros.

El Grupo da de baja el coste de las producciones ajenas un 60% en la primera emisión, un 30% en la segunda emisión, y el 10% restante en la tercera. En el caso de emisiones por capítulos de producción ajena, la eliminación de existencias se efectúa por la parte proporcional correspondiente y en la proporción antes mencionada. Asimismo, el Grupo da de baja de existencias las producciones ajenas cuyos derechos de emisión han caducado antes de su emisión.

*Coproducciones propias-*

Bajo este concepto se incluyen las coproducciones con otras cadenas de televisión. Su valoración incluye la facturación de terceros al Grupo durante el proceso de producción y los costes de la mano de obra directa imputables.

*Producciones por encargo-*

Las adquisiciones de productos realizados por otras empresas, efectuados para su emisión y posterior comercialización, se valoran a su coste de adquisición o valor neto de realización estimado, al menor de los dos.

El consumo de las coproducciones propias y producciones por encargo se registra en la cuenta de pérdidas y ganancias consolidada siguiendo el mismo criterio que las producciones propias.

*Materiales para consumo y reposición-*

Se valoran utilizando el método FIFO (primera entrada, primera salida).

Oro har, ekoizpenak igortzeko eskubideetarako hornidurak ezartzen dira edo baja ematen zaie, izakinetan agertzen duten balioan, emango ez direla edo etorkizunean berriz emango ez direla uste bada.

Con carácter general, se establecen provisiones o se dan de baja, por el valor al que figuran en existencias, aquellos derechos de emisión de producciones que se estima no se emitirán o no van a volverse a emitir en el futuro.

***h) Eskudirua eta bestelako aktibo likido baliokideak-***

Eskudiruaren eta bestelako aktibo likido baliokideen barruan sartzen dira kutxan dagoen eskudirua eta kreditu-erakundeetako ageriko banku-gordailuak, bai eta likidezia handiko epe laburreko beste inbertsio batzuk ere, eskudiru bihurtzeko modukoak badira, haietan ez badago balio-aldaketarako arrisku esanguratsurik eta Taldearen diruzaintzaren ohiko kudeaketa-politikaren parte badira. Ondorio horietarako, eskuratze-egunetik gehienez hiru hilabeteko epemugak dituzten inbertsioak jasotzen dira.

***h) Efectivo y otros activos líquidos equivalentes-***

El efectivo y otros activos líquidos equivalentes incluye el efectivo en caja y los depósitos bancarios a la vista en entidades de crédito, así como también otras inversiones a corto plazo de alta liquidez que sean convertibles en efectivo, para las que no existe un riesgo significativo de cambios de valor y formen parte de la política de gestión normal de la tesorería del Grupo. A estos efectos se incluyen las inversiones con vencimientos de menos de tres meses desde la fecha de adquisición.

***i) Atzerri-dirutan egindako transakzioak eta saldoak-***

*Moneta funtzionala eta aurkezpen-moneta-*

Urteko kontu hauek eurotan daude emanda. Euroa da Taldearen moneta funtzionala eta aurkezpen-moneta.

*Transakzioak eta saldoak-*

Atzerri-dirutan egindako transakzioak moneta funtzionalera bihurtzen dira, betiere transakzioak egiten diren datetan moneta funtzionalaren eta atzerri-diruaren artean dauden kanbio-tasak aplikatuta. Transakziook ez dira zenbateko adierazgarrikoak.

Atzerri-dirutan izendatutako aktibo eta pasibo monetarioak ekitaldiaren amaierako kanbio-tasaren arabera bihurtu dira eurotara; kostu historikoaren arabera baloratuta egon eta monetarioak ez direnak, halakorik badago, transakzioa egindako unean indarrean zen kanbio-tasa aplikatuta bihurtzen dira.

Eskudiru-fluxuen egoera-orria aurkeztean, atzerri-dirutan egindako transakzioetatik datozen fluxuak gertatu ziren datako kanbio-tasak aplikatuz bihurtzen dira eurotara. Kanbio-

***i) Transacciones y saldos en moneda extranjera-***

*Moneda funcional y de presentación-*

Las presentes cuentas anuales se presentan en euros. El euro es la moneda funcional y de presentación del Grupo.

*Transacciones y saldos-*

Las transacciones en moneda extranjera se convierten a la moneda funcional mediante la aplicación de los tipos de cambio de contado entre la moneda funcional y la moneda extranjera en las fechas en las que se efectúan las transacciones, no siendo de cuantía significativa las mismas.

Los activos y pasivos monetarios denominados en moneda extranjera se han convertido a euros aplicando el tipo de cambio existente al cierre del ejercicio, mientras que, en su caso, los no monetarios valorados a coste histórico, se convierten aplicando los tipos de cambio aplicados en la fecha en la que tuvo lugar la transacción.

En la presentación del estado de flujos de efectivo, los flujos procedentes de transacciones en moneda extranjera se convierten a euros aplicando los tipos de cambio existentes en la

tasen aldakuntzak atzerri-dirutan izendatutako eskudiruaren eta bestelako aktibo likido baliokideen gainean duen eragina bereiz aurkezten da eskudiru-fluxuen egoera-orrian, «Kanbio tasen aldaketen eragina» atalean.

fecha en la que éstos se produjeron. El efecto de la variación de los tipos de cambio sobre el efectivo y otros activos líquidos equivalentes denominados en moneda extranjera, se presenta separadamente en el estado de flujos de efectivo como "Efecto de las variaciones de los tipos de cambio".

Atzerri-dirutan egindako transakzioen likidazioan agerian geratzen diren desberdintasunak, baita atzerri-dirutan izendatutako aktibo eta pasibo monetarioak eurotara bihurtzeko prozesuan agertzen direnak ere, emaitzetan aitortzen dira. Era berean, emaitzetan aitortzen dira atzerri-dirutan izendatutako finantza-aktibo eta -pasibo monetarioekin lotutako truke-aldeekin izandako galerak eta irabaziak.

Las diferencias que se ponen de manifiesto en la liquidación de las transacciones en moneda extranjera y en la conversión a euros de activos y pasivos monetarios denominados en moneda extranjera, se reconocen en resultados. Las pérdidas y ganancias por diferencias de cambio relacionadas con activos o pasivos financieros monetarios denominados en moneda extranjera, se reconocen igualmente en resultados.

*Kanbio-tasaren estaldura-*

Taldeak dibisak epera estaltzeko hainbat eragiketa ditu kontratatuta, kanbio-tasaren ondoriozko arriskua murrizte aldera. Ekitaldiaren itxieran, eratorritako finantza-tresna horiek baloratzen dira, haien merkatu-balioa ezartzeko.

Estalduren kontabilitateko irizpideak betetzen ez dituzten finantza-tresna eratorriak emaitzetan aldaketak dituzten arrazoizko balioko aktibo edo pasibo finantzario gisa sailkatu eta balioesten dira.

*Coberturas del tipo de cambio-*

El Grupo tiene contratadas diversas operaciones de cobertura de divisas a plazo con el fin de reducir el riesgo derivado del tipo de cambio. Al cierre del ejercicio se efectúa la valoración de estos instrumentos financieros derivados al objeto de establecer su valor de mercado.

Los instrumentos financieros derivados que no cumplen con los criterios de la contabilidad de coberturas se clasifican y valoran como activos o pasivos financieros a valor razonable con cambios en resultados.

***j) Irabazien gaineko zerga-***

Irabazien gaineko zergatik eratorritako gastuak edo diru-sarrerak hala zerga korrontetik nola zerga geroratuetatik datozen gastu edo diru-sarrerak biltzen ditu.

Zerga korrontea Taldeko sozietateek ekitaldi bateko irabazien gaineko zergaren likidazio fiskalen ondorioz ordaindutako zenbatekoa da. Zergaren kuotako kenkariek eta bestelako abantaila fiskalek, atxikipenak eta konturako ordainketak salbuetsita, bai eta, halakorik denean, aurreko ekitaldietako eta honetan egiaz aplikatutako zerga-galera konpentsagarriek ere, zerga korrontean zenbateko txikiagoa egotea dakarte. Irabazien gaineko zerga korrontearen ondoriozko aktibo eta pasiboak baloratu, ordaintzea edo agintari fiskaletatik berreskuratzea aurreikusi den zenbatekoetan baloratzen dira, ekitaldia ixteko egunean

***j) Impuesto sobre beneficios-***

El gasto o ingreso por impuesto sobre beneficios comprende la parte relativa al gasto o ingreso por el impuesto corriente y la parte correspondiente al gasto o ingreso por impuesto diferido.

El impuesto corriente es la cantidad que las Sociedades del Grupo satisfacen como consecuencia de las liquidaciones fiscales del impuesto sobre el beneficio relativas a un ejercicio. Las deducciones y otras ventajas fiscales en la cuota del impuesto, excluidas las retenciones y pagos a cuenta, así como, en su caso, las pérdidas fiscales compensables de ejercicios anteriores y aplicadas efectivamente en éste, dan lugar a un menor importe del impuesto corriente. Los activos o pasivos por impuesto sobre beneficios corriente, se valoran por las cantidades que se espera pagar o recuperar de las autoridades fiscales, utilizando

indarrean edo onartuta eta argitaratzeko dauden araudia eta zerga-tasak erabilita.

Zerga geroratuaren ondoriozko gastua edo diru-sarrera bat dator zerga geroratuaren ondoriozko aktiboen eta pasiboen aitorpenarekin eta ezereztapenarekin. Halakoek aldi baterako diferentziak biltzen dituzte; aktiboen eta pasiboen kontabilitateko zenbatekoen eta haien balio fiskalaren arteko diferentzien ondorioz ordaintzea edo berreskuratzea aurreikusten diren zenbatekoak dira horiek, bai eta, halakorik badago, konpentsatzeko dauden zerga-oinarri negatiboak eta zergei begira aplikatu gabeko kenkarigatiko kredituak ere. Zenbateko horiek erregistratzen dira dagokion aldi baterako diferentziari edo kredituari berreskuratzea edo likidatzea aurreikusten den karga-tasa aplikatuz, ekitaldia ixtean indarrean edo onartuta eta argitaratzeko dagoen araudiaren arabera.

Irabazien gaineko zergarengatiko diru-sarrerak eta gastuak emaitzen kontuan aitortzen dira, korronte nahiz geroratu izan, salbu eta zuzenean ondare garbiaren kontu-sailean aitortutako transakzio edo gertakari baten ondoriozkoak badira, halakoetan kontu-sail horretan kargatzen edo abonatzen baitira; edo negozio-konbinazio baten ondoriozkoak badira, halakoetan eskuratutako negozioaren gainerako ondare-elementu gisa aitortzen baitira, baldin eta ez badira eskuratzailearen aktibo edo pasiboak, halakoak izanez gero horien aitorpena edo baja ez delako negozio-konbinazioaren parte.

Zerga geroratugatiko pasiboak denborazko alde zergapegarri guztietarako aitortzen dira, honako hauek salbu: merkataritza-fondo baten hasierako aitorpenetik eratortzen direnak, edo negozio-konbinazioa izan ez eta gainera zergaren oinarrian eta kontabilitate-emaitzan eraginik izan ez zuen transakzio bateko aktibo edo pasiboaren hasierako aitorpenetik eratortzen direnak.

Bestalde, behin-behineko diferentzia kengarriekin identifikatutako zerga geroratuengatiko aktiboak kasu bakarrean kontabilizatzen dira: baldin eta gertagarritzat jotzen bada Taldeko Erakundeek nahikoa irabazi fiskal izango dituztela etorkizunean, horiek ordaintzeko moduan, eta ez badatoz beste aktibo eta pasiboen hasierako aitorpenetik, negozio-konbinazioa ez den eta gainera zergaren oinarrian nahiz kontabilitateko emaitzan eraginik

la normativa y tipos impositivos vigentes o aprobados y pendientes de publicación en la fecha de cierre del ejercicio.

El gasto o el ingreso por impuesto diferido se corresponde con el reconocimiento y la cancelación de los activos y pasivos por impuesto diferido. Estos incluyen las diferencias temporarias, que se identifican como aquellos importes que se prevén pagaderos o recuperables derivados de las diferencias entre los importes en libros de los activos y pasivos y su valor fiscal, así como, en su caso, las bases imponibles negativas pendientes de compensación y los créditos por deducciones fiscales no aplicadas fiscalmente. Dichos importes se registran aplicando a la diferencia temporaria o crédito que corresponda el tipo de gravamen al que se espera recuperarlos o liquidarlos, según la normativa que esté vigente o aprobada y pendiente de publicación al cierre del ejercicio.

Tanto el gasto o ingreso por impuesto sobre beneficios corriente como el diferido se reconocen en resultados, salvo que surja de una transacción o suceso que se ha reconocido directamente en una partida de patrimonio neto, en cuyo caso se reconocen con cargo o abono a dicha partida, o de una combinación de negocios, en cuyo caso se reconocen como los demás elementos patrimoniales del negocio adquirido, salvo que constituyan activos o pasivos de la adquirente, en cuyo caso, su reconocimiento o baja no forma parte de la combinación de negocios.

Se reconocen pasivos por impuesto diferido para todas las diferencias temporarias imponibles, excepto aquellas derivadas del reconocimiento inicial de un fondo de comercio o del reconocimiento inicial de un activo o pasivo en una transacción que no sea una combinación de negocios y además no afectó ni a la base imponible del impuesto ni al resultado contable.

Por su parte, los activos por impuesto diferido identificados con diferencias temporarias deducibles, solo se reconocen en el caso de que se considere probable que las Entidades del Grupo vayan a tener en el futuro suficientes ganancias fiscales contra las que poder hacerlos efectivos y no procedan del reconocimiento inicial de un activo o pasivo en una transacción que no sea una combinación de negocios y además no afectó ni a la base imponible del impuesto ni al

izan ez zuen transakzio baten barruan. Zerga geroratuengatiko gainerako aktiboak (zerga-oinarri negatiboak eta konpentsatzeke dauden kenkariak) ere kasu bakarrean kontabilizatzen dira: baldin eta gertagarritzat jotzen bada Taldeak etorkizunean behar adinako irabazi fiskalak edukiko dituela horiek ordaindu ahal izateko.

resultado contable. El resto de activos por impuesto diferido (bases imponibles negativas y deducciones pendientes de compensar) solamente se reconocen en el caso de que se considere probable que el Grupo va a tener en el futuro suficientes ganancias fiscales contra las que poder hacerlos efectivos.

Zerga geroratugatiko aktiboak eta pasiboak ez dira deskontatzen, eta aktibo edo pasibo ez-korronte gisa aitortzen dira balantze bateratuan, horiek gauzatzeko edo likidatzeko aurreikusitako eguna edozein izanik ere.

Los activos y pasivos por impuesto diferido no se descuentan y se reconocen en el balance consolidado como activos o pasivos no corrientes, independientemente de la fecha esperada de realización o liquidación.

Taldearen etorkizuneko emaitzek sozietateen gaineko zergaren etorkizuneko likidazioak ekarriko ez dituztela uste den heinean, ez da aktibo edo pasiborik aitortzen zerga geroratuaren kontzeptuan.

En la medida en que se estima que los resultados futuros del Grupo no darán lugar a liquidaciones futuras del impuesto de sociedades no se reconocen activos o pasivos en concepto de impuesto diferido

2022ko ekitaldirako sozietateen gaineko zerga Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 5eko 11/2013 Foru Arauari jarraikiz kitatuko da.

El Impuesto sobre Sociedades para el ejercicio 2022 será liquidado según la Norma Foral, 11/2013, de 5 de diciembre, del Impuesto sobre Sociedades.

### *k) Diru-sarrerak eta gastuak-*

Bezeroekin konprometitutako ondasun edo zerbitzuen kontrola transferitzen denean, taldeak bere jardueraren ohiko garapenagatiko diru-sarrerak aitortzen ditu.

Diru-sarreren kontabilitate-erregistrorako, erakundeak segidako etapa hauek dituen prozesu bat jarraitzen du:

a) Bezeroarekiko kontratua (edo kontratuak) identifikatzea, hau da, bi alderdiren edo gehiagoren arteko akordioa, bi aldeentzat eska daitezkeen eskubideak eta betebeharrak sortzen dituena.
b) Kontratuan bete beharreko betebeharra edo betebeharrak identifikatzea, bezero bati ondasunak transferitzeko edo zerbitzuak emateko konpromisoen adierazgarri.
c) Transakzioaren edo kontratuaren kontraprestazioaren prezioa zehaztea, taldeak ondasun-transferentziaren edo bezeroarekin konprometitutako zerbitzu-prestazioaren truke eskubidea izatea espero duena.
d) Transakzioaren prezioa bete beharreko betebeharrei esleitzea, kontratuan hitzartutako ondasun edo zerbitzu bakoitzaren banakako salmenta-prezioen arabera, edo, hala

### *k) Ingresos y gastos-*

El Grupo reconoce los ingresos por el desarrollo ordinario de su actividad cuando se produce la transferencia de control de los bienes o servicios comprometidos con los clientes.

Para el registro contable de ingresos, el Grupo sigue un proceso que consta de las siguientes etapas sucesivas:

a) Identificar el contrato (o contratos) con el cliente, entendido como un acuerdo entre dos o más partes que crea derechos y obligaciones exigibles para las mismas.
b) Identificar la obligación u obligaciones a cumplir en el contrato, representativas de los compromisos de transferir bienes o prestar servicios a un cliente.
c) Determinar el precio de la transacción, o contraprestación del contrato a la que el Grupo espera tener derecho a cambio de la transferencia de bienes o de la prestación de servicios comprometida con el cliente.
d) Asignar el precio de la transacción a las obligaciones a cumplir, que deberá realizarse en función de los precios de venta individuales de cada bien o servicio distinto que se hayan comprometido en el contrato, o bien, en su

badagokio, salmenta-prezioaren estimazio bati jarraituz, prezio hori modu independentean behatu ezin denean.
e) Taldeak ondasun bat transferituz edo zerbitzu bat emanez konprometitutako betebehar bat betetzen duenean ohiko jarduerengatiko sarrera aitortzea; betebehar hori bezeroak ondasun edo zerbitzu horren kontrola lortzen duenean gertatzen da, eta, beraz, aitortutako jarduera arrunten diru-sarreraren zenbatekoa ordaindutako kontratu-betebeharrari esleitutako zenbatekoa izango da.

*1. Aintzatespena*

Taldeak kontratu batetik eratorritako diru-sarrerak onartzen ditu bezeroari konprometitutako ondasun edo zerbitzuen gaineko kontrola transferitzen zaionean (hau da, bete beharreko betebeharrak).

Identifikatzen den bete beharreko betebehar bakoitzerako, taldeak kontratuaren hasieran zehazten du hartutako konpromisoa denboran zehar edo une jakin batean betetzen den.

Taldeari aplika dakizkiokeen kontratu-betebeharren kasuan, betebehar horiek une jakin batean betetzen dira osorik, eta, beraz, betearaztetik eratorritako diru-sarrerak egun horretan aitortzen dira. Produktuaren ekoizpenean edo fabrikazioan egindako kostuak izakin gisa kontabilizatzen dira.

*2. Obligazioa denboraren une batean betetzeari buruzko adierazleak*

Bezeroak aktiboaren kontrola lortzen duen une zehatza identifikatzeko, taldeak adierazle hauek hartu behar dira kontuan:

a) Bezeroak bere gain hartzen ditu aktiboaren jabetzari datxezkion arrisku eta onura esanguratsuak.
b) Taldeak aktiboaren edukitza fisikoa transferitzen du.
c) Bezeroak kontratu-zehaztapenen arabera jasotzen du aktiboa.
d) Taldeak kobrantza-eskubidea du aktiboa transferitzeagatik.
e) Bezeroak aktiboaren jabetza du.

caso, siguiendo una estimación del precio de venta cuando el mismo no sea observable de modo independiente.
e) Reconocer el ingreso por actividades ordinarias cuando el Grupo cumple una obligación comprometida mediante la transferencia de un bien o la prestación de un servicio; cumplimiento que tiene lugar cuando el cliente obtiene el control de ese bien o servicio, de forma que el importe del ingreso de actividades ordinarias reconocido será el importe asignado a la obligación contractual satisfecha.

*1. Reconocimiento*

El Grupo reconoce los ingresos derivados de un contrato cuando se produce la transferencia al cliente del control sobre los bienes o servicios comprometidos (es decir, la o las obligaciones a cumplir).

Para cada obligación a cumplir que se identifique, el Grupo determina al comienzo del contrato si el compromiso asumido se cumple a lo largo del tiempo o en un momento determinado.

En el caso de las obligaciones contractuales aplicables al Grupo, éstas se cumplen en un momento determinado, y por tanto, los ingresos derivados de su ejecución se reconocen en tal fecha. Los costes incurridos en la producción o fabricación del producto se contabilizan como existencias.

*2. Indicadores de cumplimiento de la obligación en un momento del tiempo*

Para identificar el momento concreto en que el cliente obtiene el control del activo, el Grupo considera los siguientes indicadores:

a) El cliente asume los riesgos y beneficios significativos inherentes a la propiedad del activo.
b) El Grupo transfiere la posesión física del activo.
c) El cliente recibe el activo a conformidad de acuerdo con las especificaciones contractuales.
d) El Grupo tiene un derecho de cobro por transferir el activo.
e) El cliente tiene la propiedad del activo.

3. Balorazioa

Ondasunak saltzetik eta zerbitzuak ematetik datozen diru-sarrera arruntak diruzko zenbatekoan balioesten dira, edo, hala badagokio, kontrapartidaren arrazoizko balioan, jaso denean edo jasotzea espero denean. Kontrakontua bezeroari transferitu beharreko aktiboetarako adostutako prezioa da, honako hauek kenduta: edozein deskonturen zenbatekoa, prezioan beherapena edo taldeak eman ditzakeen antzeko beste partida batzuk, bai eta kredituen nominalari erantsitako interesak ere.

### l) Hornidurak eta kontingentziak-

Taldearen zuzendari nagusiak honako hauek bereizten ditu urteko kontu bateratuak egiteko orduan:

- Hornidurak: iraganeko gertaeren ondoriozko oraingo betebeharrak estaltzen dituzten saldo hartzekodunak, horiek legezkoak, kontratukoak, inplizituak edo tazituak izan, baldin eta aski litekeena bada haiek kitatzeak baliabide-irteera eragitea, eta haien zenbatekoa edo kitatzeko unea zehaztugabea bada.

- Kontingentziak: iraganeko gertaeren ondorioz sor daitezkeen betebeharrak, Taldearen nahiarekin lotuta ez dagoen etorkizuneko gertakizun bat edo gehiago gertatzearen edo ez gertatzearen baitan badago haiek gauzatzea.

Urteko kontu bateratuetan jasotako hornidura guztiei dagokienez, irizten da betebeharrari erantzun behar izateko arriskua handiagoa dela hori ez gertatzeko aukera baino, eta haien zenbatekoaren arrazoizko zenbatespena egitea badagoela. Haien zuzkidura erantzukizuna edo betebeharra sortzean egiten da, betebeharraren izaeraren arabera dagokion emaitza-kontuko epigrafearen kargura.

Kontingentziak ez dira urteko kontu bateratuetan aitortzen; nolanahi ere, haien berri ematen da memoria bateratuaren oharretan, nola eta ez diren urrunekotzat jotzen.

Hornidurak baloratzen dira betebeharra kitatzeko edo eskualdatzeko behar den zenbatekoaren

3. Valoración

Los ingresos ordinarios procedentes de la venta de bienes y de la prestación de servicios se valoran por el importe monetario o, en su caso, por el valor razonable de la contrapartida, recibida o que se espere recibir. La contrapartida es el precio acordado para los activos a transferir al cliente, deducido: el importe de cualquier descuento, rebaja en el precio u otras partidas similares que el Grupo pueda conceder, así como los intereses incorporados al nominal de los créditos.

### l) Provisiones y contingencias-

El Director General del Grupo en la formulación de las cuentas anuales consolidadas diferencia entre:

- Provisiones: saldos acreedores que cubren obligaciones actuales, ya sean legales, contractuales, implícitas o tácitas, derivadas de sucesos pasados, cuya cancelación es probable que origine una salida de recursos, pero que resultan indeterminados en cuanto a su importe y/o momento de cancelación.

- Contingencias: obligaciones posibles surgidas como consecuencia de sucesos pasados, cuya materialización futura está condicionada a que ocurra, o no, uno o más eventos futuros independientes de la voluntad del Grupo.

Las cuentas anuales consolidadas recogen todas las provisiones con respecto a las cuales se estima que la probabilidad de que se tenga que atender la obligación es mayor que de lo contrario y que se pueda realizar una estimación razonable del importe de las mismas. Su dotación se efectúa al nacimiento de la responsabilidad o de la obligación con cargo al epígrafe de la cuenta de resultados que corresponda según la naturaleza de la obligación.

Las contingencias no se reconocen en las cuentas anuales consolidadas, sino que se informa sobre las mismas en las notas de la memoria consolidada, en la medida en que no sean consideradas como remotas.

Las provisiones se valoran por el valor actual de la mejor estimación posible del importe necesario

ahalik eta zenbatespen onenaren balio eguneratuan, gertaerari eta haren ondorioei buruz eskura dagoen informazioa aintzat hartuta, eta aipatutako hornidura horiek finantza-gastu gisa sortzen den neurrian eguneratzeagatik sortutako doikuntzak erregistratuta. Nolanahi ere, urtebeteko edo gutxiagoko epemuga duten hornidurak direnean, eta eragin finantzarioa esanguratsua ez denean, ez da deskonturik egiten.

Hornidurak emaitzetara itzultzen dira halako betebeharra kitatzeko baliabide-irteeraren bat gertatzeko arriskua txikiagoa bada halakorik gertatzeko aukera baino.

***m) Diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak-***

Diru-laguntza, dohaintza eta legatu ez-itzulgarriak, oro har, dagokion zerga-eragina kendu ondoren ondare garbian zuzenean aitortutako sarrera gisa kontabilizatzen dira; horien emakida ofiziala lortzen denean, emateko baldintzak bete direnean eta horiek jasotzeari buruzko arrazoizko zalantzarik ez denean; galdu-irabazien kontuan kontabilizatzen dira sarrera gisa, horiek eragindako gastuekin korrelazioan. Kapitaleko diru-laguntzak, berriz, ekitaldiko emaitzetara egozten dira horiekin finantzatutako aktiboei dagokien amortizazioaren arabera edo, hala dagokionean, haien besterentzea, baja edo narriadurak eragindako balio-zuzenketa gertatzen denean. Hala ere, etorkizuneko emaitzek sozietateen gaineko zergaren ordainketarik ekarriko ez dutela uste den heinean, ez da zerga geroratuagatiko pasiborik aitortzen. Zerga geroratuagatik aitortu ez diren aktibo eta pasiboen xehetasuna 23. oharrean zehazten da.

Diru izaera duten laguntza, dohaintza eta legatuak emandako zenbatekoaren arrazoizko balioaren arabera baloratzen dira.

Itzuli beharrekoak ez diren diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak emaitzetara egozteko, zer xede duten hartzen da kontuan.

Gastuak finantzatzeko jasotako diru-laguntza ofizialak ekitaldiko diru-sarreratzat hartzen dira eta galdu-irabazien kontu bateratuko «Ustiapeneko beste diru-sarrera batzuk –

para cancelar o transferir la obligación, teniendo en cuenta la información disponible sobre el suceso y sus consecuencias, y registrándose los ajustes que surjan por la actualización de dichas provisiones como un gasto financiero conforme se va devengando. No obstante, tratándose de provisiones con vencimiento inferior o igual a un año, y el efecto financiero no es significativo, no se lleva a cabo ningún tipo de descuento.

Las provisiones revierten en resultados cuando es menor la posibilidad de ocurrencia de que exista una salida de recursos para cancelar tal obligación que de lo contrario.

***m) Subvenciones, donaciones y legados-***

Las subvenciones, donaciones y legados no reintegrables se contabilizan, con carácter general, como ingresos reconocidos directamente en patrimonio neto, una vez deducido el efecto impositivo correspondiente, cuando se obtiene, en su caso, la concesión oficial de las mismas y se han cumplido las condiciones para su concesión o no existen dudas razonables sobre la recepción de las mismas, y se reconocen en la cuenta de pérdidas y ganancias como ingresos de forma correlacionada con los gastos derivados de las mismas. Las subvenciones de capital, en su caso, se imputan al resultado del ejercicio en proporción a la amortización correspondiente a los activos financiados con las mismas o en su caso, cuando se produzca la enajenación, baja o corrección valorativa por deterioro de los mismos. No obstante, en la medida en que se estima que los resultados futuros no darán lugar a pagos del impuesto de sociedades no se reconocen pasivos por impuesto diferido. El detalle de los activos y pasivos por impuesto diferido no reconocidos se detalla en la nota 23.

Las subvenciones, donaciones y legados de carácter monetario se valoran por el valor razonable del importe concedido.

La imputación a resultados de las subvenciones, donaciones y legados no reintegrables se realiza atendiendo a su finalidad.

Las subvenciones oficiales recibidas para financiar gastos, se consideran ingresos del ejercicio y se presentan en el epígrafe "Otros ingresos de explotación - Subvenciones de explotación incorporadas al resultado del

ekitaldiaren emaitzan sartutako ustiapenerako diru-laguntzak» epigrafean aurkezten dira.

ejercicio" de la cuenta de pérdidas y ganancias consolidada.

### *n) Kaleratzeagatiko kalte-ordainak-*

Indarrean dagoen legeriaren arabera, Taldeak nahitaez eman behar dizkie kalte-ordainak langileei, egoera jakin batzuetan beren arteko lan-harremana eten duen kasuetan. Horrenbestez, arrazoizko kuantifikazioa izan dezaketen kaleratzeagatiko kalte-ordainak gastu gisa erregistratzen dira, kaleratzeko erabakia hartzen den ekitaldian. Erantsitako urteko kontu bateratuetan beharrezko hornidura erregistratu da kontzeptu horregatik, aurreikusi diren halako egoeren arabera (17.Oharra).

### *n) Indemnizaciones por despido-*

De acuerdo con la legislación vigente, el Grupo está obligado al pago de indemnizaciones a aquellos empleados con los que, bajo determinadas condiciones, rescinda sus relaciones laborales. Por tanto, las indemnizaciones por despido susceptibles de cuantificación razonable se registran como gasto en el ejercicio en el que se adopta la decisión del despido. En las cuentas anuales consolidadas adjuntas se ha registrado la provisión necesaria por este concepto, en función de las situaciones previstas de esta naturaleza (Nota 17).

### *o) Langileen epe luzeko ordainsarigatiko pasiboak-*

2004ko uztailaren 27an, Eusko Jaurlaritzak Itzarri Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundea eratu zuen. BGAE horren aurreikuspen-sistemaren pertsona-eremuaren barruan Sozietate Publikoak sartzen dira, eta horien artean Taldea dago bazkide babesle gisa. Eusko Jaurlaritzaren eta sindikatuen artean 2004an sinatutako akordioan, bazkide babesle bakoitzak bere langile guztien alde egin beharreko ekarpen zehatz gisa finkatu zen soldata gordinaren ehuneko jakin bat.

2019ko azaroaren 26an eta 2020ko abenduaren 29an Gobernu Kontseiluak hartutako erabakien babesean, Erakundeak Itzarri Borondatezko Gizarte Aurreikuspen Erakundeari (BGAE) langileen ordainsari finkoen eta aldizkakoen %1,5 eko ekarpena egin dio 2020ko abendura arte eta % 2koa 2021eko urtarriletik aurrera. Hala, 2022ko ekitaldian 1.093.433 euroko ekarpena (24. oharra) egin du (1.032.440 euro 2021eko ekitaldian) eta irabazi eta galeren kontu bateratuan "Langile gastuak – Gizarte kargak" epigrafean erregistratuta dago.

### *o) Pasivos por retribuciones a largo plazo al personal-*

Con fecha 27 de julio de 2004, el Gobierno Vasco aprobó la constitución de la Entidad de Previsión Social Voluntaria Itzarri - EPSV, cuyo ámbito personal del sistema de previsión incluye a las Sociedades Públicas, entre las que se encuentra el Ente en condición de socio protector. En el acuerdo correspondiente al año 2004 firmado entre el Gobierno Vasco y los sindicatos se fijó como aportación definida por cada socio protector a favor de todos sus trabajadores un porcentaje del salario bruto anual de cada trabajador.

En virtud de los acuerdos tomados por el Consejo de Gobierno con fecha 26 de noviembre de 2019 y 29 de diciembre de 2020, la aportación del Ente a la Entidad de Previsión Social Voluntaria Itzarri – EPSV fue de un 1,5% de las retribuciones fijas y periódicas de su personal hasta el mes de diciembre de 2020 y de un 2% a partir del mes de enero de 2021. La aportación del ejercicio 2022, que ha ascendido a 1.093.433 euros (1.032.440 euros en el ejercicio 2021) (Nota 24), figura registrada en el epígrafe "Gastos de personal – Cargas sociales" de la cuenta de pérdidas y ganancias consolidada adjunta.

### *p) Ingurumen-izaerako ondare-osagaiak-*

Ingurumen-izaerako aktibotzat hartzen dira Taldearen jardueran modu iraunkorrean

### *p) Elementos patrimoniales de naturaleza medioambiental-*

Se consideran activos de naturaleza medioambiental los bienes que son utilizados de

erabilitako ondasunak, baldin eta haien xede nagusia bada ingurumen-inpaktua gutxiagotzea eta ingurumena babestu eta hobetzea, etorkizuneko kutsadura murriztea edo deuseztatzea barne.

forma duradera en la actividad del Grupo, cuya finalidad principal es la minimización del impacto medioambiental y la protección y mejora del medioambiente, incluyendo la reducción o eliminación de la contaminación futura.

Taldearen jarduerak, bere izaeragatik, ez du eragin nabarmenik ingurumenean.

La actividad del Grupo, por su naturaleza, no tiene impacto medioambiental significativo.

***q) Transakzioak alderdi loturadunekin-***

***q) Transacciones con partes vinculadas-***

Urteko kontu bateratuak prestatzean, horrez gainera, Taldearekiko lotura duten alderditzat hartu dira Erakunde nagusiko Bazkide Bakarra, Erakundeko enpresa nagusiaren funtsezko langileak (zuzenean nahiz zeharka enpresaren jarduera planifikatzeko, zuzentzeko eta kontrolatzeko autoritatea eta erantzukizuna duten pertsona fisikoak), tartean Taldearen administratzaileak eta zuzendariak daudela, hurbileko senideekin batera, bai eta aipatutako pertsona horiek nabarmenki eragin ditzaketen entitateak ere.

En la preparación de las cuentas anuales consolidadas se han considerado partes vinculadas al Grupo, adicionalmente a las empresas asociadas, al Socio Único de la Entidad dominante, al personal clave del Ente (personas físicas con autoridad y responsabilidad sobre la planificación, dirección y control de las actividades del Grupo, ya sea directa o indirectamente), entre la que se incluyen los Administradores y los Directivos del Grupo, junto a sus familiares próximos, así como a las entidades sobre las que las personas mencionadas anteriormente puedan ejercer una influencia significativa.

Era berean, enpresarekin lotura duten alderditzat hartzen dira Taldearekin kontseilariren bat edo zuzendariren bat partekatzen duten enpresak, salbu eta pertsona horrek bi erakundeen finantza- eta ustiapen-politiketan eragin garrantzitsurik ez duenean.

Asimismo tienen la consideración de partes vinculadas las empresas que compartan algún consejero o directivo con el Grupo, salvo cuando éste no ejerza una influencia significativa en las políticas financiera y de explotación de ambas.

Erakundeak merkatuko balioetan egiten ditu loturadun alderdiekin eragiketak, oro har. Bestalde, transferentzia-prezioak behar bezala eutsita daude; beraz, zuzendari nagusiaren ustez, alderdi horretatik ez dago arrisku esanguratsurik, etorkizunean pasibo nabarmenak sortzeko moduan.

En general, el Grupo realiza todas sus operaciones con vinculadas a valores de mercado. Adicionalmente, los precios de transferencia se encuentran adecuadamente soportados por lo que el Director General del Ente considera que no existen riesgos significativos por este aspecto de los que puedan derivarse pasivos de consideración en el futuro.

***r) Aktiboak eta pasiboak korrontetzat edo ez-korrontetzat sailkatzea-***

***r) Clasificación de activos y pasivos entre corrientes y no corrientes-***

Erantsitako balantze bateratuan saldoak korronte nahiz ez-korronte gisa daude sailkatuta. Saldo korronteak Taldeak ustiapen-ziklo normalean saldu, kontsumitu, ordaindu edo egin nahi dituenak dira. Sailkapen horrekin bat ez datozenak ez-korronteak dira.

En los balances consolidados adjuntos, los saldos se clasifican en no corrientes y corrientes. Los corrientes comprenden aquellos saldos que el Grupo espera vender, consumir, desembolsar o realizar en el transcurso del ciclo normal de explotación. Aquellos otros que no correspondan con esta clasificación se consideran no corrientes.

## (6) Ibilgetu ukiezina

2022 eta 2021eko ekitaldietan, mugimendu hauek izan dira ibilgetu ukiezinaren kontuetan eta haiei dagozkien amortizazio metatuetan:

## (6) Inmovilizado Intangible

Los movimientos habidos durante los ejercicios 2022 y 2021 en las diferentes cuentas del inmovilizado intangible y de sus correspondientes amortizaciones acumuladas han sido los siguientes:

**Ejercicio 2022 *Ekitaldia*:**

| | Euros / *Euroak* | | | |
|---|---|---|---|---|
| | Saldo al 31.12.2021 // *2021.12.31n saldoa* | Adiciones o Dotaciones / *Gehikuntzak edo hornidurak* | Bajas/ *Kentzeak* | Saldo al 31.12.2022 // *2022.12.31n saldoa* |
| COSTE: *KOSTUA* | | | | |
| Patentes, licencias, marcas y similares *Patenteak, lizentziak, markak eta antzekoak* | 71.978.812 | 3.318.592 | - | 75.297.404 |
| Aplicaciones informáticas *Aplikazio Informatikoak* | 8.768.381 | 264.025 | (4.421.270) | 4.611.136 |
| Derechos de uso *Erabiltzeko Eskubideak* | 842.802 | - | - | 842.802 |
| Otro inmovilizado intangible *Bestelako ibilgetu ukiezina* | 200.354 | 47.454 | - | 247.808 |
| | 81.790.349 | 3.630.071 | (4.421.270) | 80.999.150 |
| AMORTIZACIÓN ACUMULADA: *METATUTAKO AMORTIZAZIOA* | | | | |
| Patentes, licencias, marcas y similares *Patenteak, lizentziak, markak eta antzekoak* | (66.203.343) | (3.138.464) | - | (69.341.807) |
| Aplicaciones informáticas *Aplikazio Informatikoak* | (8.158.894) | (225.541) | 4.421.270 | (3.963.165) |
| Derechos de uso *Erabiltzeko Eskubideak* | (251.264) | (12.368) | - | (263.632) |
| Otro inmovilizado intangible *Bestelako ibilgetu ukiezina* | - | - | - | - |
| | (74.613.501) | (3.376.373) | 4.421.270 | (73.568.604) |
| INMOVILIZADO INTANGIBLE, NETO: *IBILGETU UKIEZIN GARBIA* | | | | |
| Patentes, licencias, marcas y similares *Patenteak, lizentziak, markak eta antzekoak* | 5.775.469 | 180.128 | - | 5.955.597 |
| Aplicaciones informáticas *Aplikazio Informatikoak* | 609.487 | 38.484 | - | 647.971 |
| Derechos de uso *Erabiltzeko Eskubideak* | 591.538 | (12.368) | - | 579.170 |
| Otro inmovilizado intangible *Bestelako ibilgetu ukiezina* | 200.354 | 47.454 | - | 247.808 |
| | 7.176.848 | 253.698 | - | 7.430.546 |

**Ejercicio 2021 *Ekitaldia*:**

| | Euros / *Euroak* | | |
|---|---|---|---|
| | Saldo al 31.12.2020 // *2020.12.31n saldoa* | Adiciones o Dotaciones / *Gehikuntzak edo hornidurak* | Saldo al 31.12.2021 // *2021.12.31n saldoa* |
| COSTE: *KOSTUA* | | | |
| Patentes, licencias, marcas y similares *Patenteak, lizentziak, markak eta antzekoak* | 67.212.485 | 4.766.327 | 71.978.812 |
| Aplicaciones informáticas *Aplikazio Informatikoak* | 8.350.376 | 418.005 | 8.768.381 |
| Derechos de uso *Erabiltzeko Eskubideak* | 842.802 | - | 842.802 |
| Otro inmovilizado intangible *Bestelako ibilgetu ukiezina* | 14.288 | 186.066 | 200.354 |
| | 76.419.951 | 5.370.398 | 81.790.349 |
| AMORTIZACIÓN ACUMULADA: *METATUTAKO AMORTIZAZIOA* | | | |
| Patentes, licencias, marcas y similares *Patenteak, lizentziak, markak eta antzekoak* | (61.498.792) | (4.704.551) | (66.203.343) |
| Aplicaciones informáticas *Aplikazio Informatikoak* | (8.013.343) | (145.551) | (8.158.894) |
| Derechos de uso *Erabiltzeko Eskubideak* | (238.896) | (12.368) | (251.264) |
| Otro inmovilizado intangible *Bestelako ibilgetu ukiezina* | - | - | - |
| | (69.751.031) | (4.862.470) | (74.613.501) |
| INMOVILIZADO INTANGIBLE, NETO: *IBILGETU UKIEZIN GARBIA* | | | |
| Patentes, licencias, marcas y similares *Patenteak, lizentziak, markak eta antzekoak* | 5.713.693 | 61.776 | 5.775.469 |
| Aplicaciones informáticas *Aplikazio Informatikoak* | 337.033 | 272.454 | 609.487 |
| Derechos de uso *Erabiltzeko Eskubideak* | 603.906 | (12.368) | 591.538 |
| Otro inmovilizado intangible *Bestelako ibilgetu ukiezina* | 14.288 | 186.066 | 200.354 |
| | 6.668.920 | 507.928 | 7.176.848 |

2022 eta 2021eko ekitaldiko gehikuntzak, batik bat, Eusko Jaurlaritzak diruz lagundutako ikus-entzunezko hainbat proiektutan Taldeak ekoizle nahiz koproduktore jardunean ordaindu dituen zenbatekoei dagozkie. 2022 eta 2021eko ekitaldietan, zineman inbertitzeko 6.000.000 eta 5.050.000 euro eman dira diru-laguntzatan ekitaldi bakoitzean hurrenez hurren (16. oharra).

Las adiciones del ejercicio 2022 y 2021 se corresponden principalmente con los importes satisfechos por el Grupo en calidad de productor y/o coproductor en diferentes proyectos audiovisuales, que han sido subvencionadas por el Gobierno Vasco. En los ejercicios 2022 y 2021 el importe de las subvenciones recibidas para la inversión en cine ha ascendido a 6.000.000 euros y 5.050.000 euros respectivamente (Nota 16).

Balantze bateratuko «Ibilgetu ukiezina – Erabiltzeko-eskubideak» epigrafean, Gipuzkoako Foru Aldundiaren jabetzako lursail bat erabiltzeko eskubideei egotz dakieken balio bat jaso da. Hain zuzen, Miramongo (Donostia) Programen Ekoizpen Zentroa dago lursail horretan. Eskubidea 1999ko irailaren 23an atxiki zitzaion zentroari, eta 70 urteko iraunaldia du. 2014ko abenduaren 31n 298.886 euroko zenbatekoan zabaldu zen erabilera-eskubidea, 55 urteko iraunaldiarekin, eta 2069ko abenduaren 31ko epemuga ezarri zen bi eskubideotarako. Higiezina Erakundeari atxikitzearen ondoriozko diru-sarrera balantze bateratuko «Diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak» epigrafean ageri da (16. oharra) ageri da, eta emaitzen kontuan egozten da, azalera erabiltzeko eskubidearen amortizazioaren arabera, galdu-irabazien kontu bateratuko «Ibilgetu ez-finantzarioko diru-laguntzen eta beste batzuen egozpena» epigrafean sarrera gisa erregistratuta.

El epígrafe "Inmovilizado intangible – Derechos de uso" del balance consolidado adjunto recoge el valor atribuible a los derechos de uso sobre un terreno propiedad de la Diputación Foral de Gipuzkoa en el que se asienta el Centro de Producción de Programas en Miramón (San Sebastián). Dicho derecho se adscribió al Ente el 23 de septiembre de 1999 y tiene una duración de 70 años. Con fecha 31 de diciembre de 2014 hubo una ampliación de dicho derecho de uso por importe de 298.886 con una duración de 55 años estableciéndose un vencimiento para ambos derechos de uso en 31 de diciembre de 2069. El ingreso derivado de la adscripción de dicho inmueble al Ente figura en el epígrafe "Subvenciones, donaciones y legados recibidos" del balance consolidado (Nota 16), y se imputa a resultados en función de la amortización del derecho a superficie, registrándose un ingreso en el epígrafe "Imputación de subvenciones de inmovilizado no financiero y otras" de la cuenta de pérdidas y ganancias consolidada.

2022 eta 2021eko abenduaren 31n guztiz amortizatuta zeuden etengabeko erabilera-egoeran zeuden ibilgetu materialeko elementu batzuk, 72.862.024 euroko eta 74.018.895 euroko zenbatekokoak, hurrenez hurren, xehetasun honen arabera:

Al 31 de diciembre de 2022 y 2021 existían elementos de inmovilizado intangible, en estado de uso continuado, que se encontraban totalmente amortizados, por un importe de 72.862.024 euros y 74.018.895 euros, respectivamente, según el siguiente detalle:

| | Euros / *Euroak* | |
|---|---|---|
| | 31.12.2022 | 31.12.2021 |
| Propiedad intelectual<br>*Jabetza intelektuala* | 69.340.773 | 66.203.479 |
| Aplicaciones informáticas<br>*Aplikazio informatikoak* | 3.521.251 | 7.815.416 |
| | 72.862.024 | 74.018.895 |

2022ko eta 2021eko ekitaldien itxieran, Taldeak jabetza intelektualarekin eta apliakazio informatikoekin lotutako ibilgetu ukiezina erosteko konpromiso irmoak zituen hartuta, 2.765.836 euroko eta 2.670.450 euroko zenbatekoan, hurrenez hurren.

Al cierre de los ejercicios 2022 y 2021, el Grupo tenía compromisos firmes de compra de inmovilizado intangible correspondientes a propiedad intelectual y aplicaciones informáticas por un importe de 2.765.836 euros y 2.670.450 euros, respectivamente.

## (7) Ibilgetu materiala

## (7) Inmovilizado Material

2022ko eta 2021eko ekitaldietako kontu-sailetan, mugimendu hauek izan dira ibilgetu materialaren eta horri dagozkion amortizazio metatuetan:

El movimiento habido durante los ejercicios 2022 y 2021 en las diferentes partidas del inmovilizado material y de sus correspondientes amortizaciones acumuladas, ha sido el siguiente:

**Ejercicio 2022 *Ekitaldia*:**

| | Saldo al 31.12.2021 // *2021.12.31n saldoa* | Adiciones o Dotaciones / *Gehikuntzak edo hornidurak* | Retiros / *Kentzeak* | Traspasos / *Intsuldaketak* | Saldo al 31.12.2022 // *2022.12.31n saldoa* |
|---|---|---|---|---|---|
| | Euros / *Euroak* | | | | |
| COSTE: *KOSTEA:* | | | | | |
| Terrenos y construciones- *Lursailak eta Eraikuntzak* | | | | | |
| Construcciones *Eraikuntzak* | 59.403.105 | 74.671 | (353.461) | - | 59.124.315 |
| Instalaciones técincas y otro inmovilizado material *Instalazio teknioak eta bestelako ibilgetu materiala* | | | | | |
| Instalaciones técnicas y maquinaria *Instalazio teknikoak eta makinak* | 93.169.276 | 4.182.357 | (15.197.116) | 396.587 | 82.551.104 |
| Otras instalaciones, utillaje y mobiliario *Beste instalazioak, tresneria eta altzariak* | 3.724.214 | 244.570 | (571.208) | (396.587) | 3.000.989 |
| Otro inmovilizado material *Beste ibilgetu materiala* | 6.391.814 | 314.113 | (2.651.478) | - | 4.054.449 |
| | 103.285.304 | 4.741.040 | (18.419.802) | - | 89.606.542 |
| Inmovilizado en curso y anticipos *Egite-bidean den ibilgetua eta aurrerakinak* | 238.616 | 1.834.703 | - | | 2.073.319 |
| | 162.927.025 | 6.650.414 | (18.773.263) | - | 150.804.176 |
| AMORTIZACIÓN ACUMULADA: *METATUTAKO AMORTIZAZIOA:* | | | | | |
| Construcciones *Eraikuntzak* | (25.214.840) | (1.691.956) | 353.461 | - | (26.553.335) |
| Instalaciones técnicas y otro inmovilizado material *Instalazio teknioak eta bestelako ibilgetu materiala* | | | | | |
| Instalaciones técnicas y maquinaria *Instalazio teknikoak eta makinak* | (87.159.595) | (3.026.384) | 15.197.116 | (48.018) | (75.036.881) |
| Otras instalaciones, utillaje y mobiliario *Beste instalazioak, tresneria eta altzariak* | (3.143.653) | (45.633) | 571.208 | 48.018 | (2.570.060) |
| Otro inmovilizado material *Beste ibilgetu materiala* | (5.747.577) | (329.467) | 2.651.478 | - | (3.425.566) |
| | (96.050.825) | (3.401.484) | 18.419.802 | - | (81.032.507) |
| | (121.265.665) | (5.093.440) | 18.773.263 | - | (107.585.842) |
| INMOVILIZADO MATERIAL, NETO: *IBILGETU MATERIAL GARBIA:* | | | | | |
| Terrenos y construciones- *Lursailak eta Eraikuntzak* | | | | | |
| Construcciones *Eraikuntzak* | 34.188.265 | (1.617.285) | - | - | 32.570.980 |
| Instalaciones técincas y otro inmovilizado material *Instalazio teknioak eta bestelako ibilgetu materiala* | | | | | |
| Instalaciones técnicas y maquinaria *Instalazio teknikoak eta makinak* | 6.009.681 | 1.155.973 | - | 348.569 | 7.514.223 |
| Otras instalaciones, utillaje y mobiliario *Beste instalazioak, tresneria eta altzariak* | 580.561 | 198.937 | - | (348.569) | 430.929 |
| Otro inmovilizado material *Beste ibilgetu materiala* | 644.237 | (15.354) | - | - | 628.883 |
| | 7.234.479 | 1.339.556 | - | - | 8.574.035 |
| Inmovilizado en curso y anticipos *Egite-bidean den ibilgetua eta aurrerakinak* | 238.616 | 1.834.703 | - | - | 2.073.319 |
| | 41.661.360 | 1.556.974 | - | - | 43.218.334 |

**Ejercicio 2021 *Ekitaldia*:**

| | Euros / *Euroak* | | | |
|---|---|---|---|---|
| | Saldo al 31.12.2020 // *2020.12.31n saldoa* | Adiciones o Dotaciones / *Gehikuntzak edo hornidurak* | Retiros / *Kentzeak* | Saldo al 31.12.2021 // *2021.12.31n saldoa* |
| COSTE: | | | | |
| *KOSTEA:* | | | | |
| Terrenos y construciones- | | | | |
| *Lursailak eta Eraikuntzak* | | | | |
| Construcciones<br>*Eraikuntzak* | 58.956.991 | 446.114 | - | 59.403.105 |
| Instalaciones técnicas y otro inmovilizado material | | | | |
| *Instalazio teknioak eta bestelako ibilgetu materiala* | | | | |
| Instalaciones técnicas y maquinaria<br>*Instalazio teknikoak eta makinak* | 90.585.069 | 2.584.207 | - | 93.169.276 |
| Otras instalaciones, utillaje y mobiliario<br>*Beste instalazioak, tresneria eta altzariak* | 3.640.540 | 83.674 | - | 3.724.214 |
| Otro inmovilizado material<br>*Beste ibilgetu materiala* | 6.299.153 | 92.661 | - | 6.391.814 |
| | 100.524.762 | 2.760.542 | - | 103.285.304 |
| Inmovilizado en curso y anticipos<br>*Egite-bidean den ibilgetua eta aurrerakinak* | 245.777 | 238.616 | (245.777) | 238.616 |
| | 159.727.530 | 3.445.272 | (245.777) | 162.927.025 |
| AMORTIZACIÓN ACUMULADA: | | | | |
| *METATUTAKO AMORTIZAZIOA:* | | | | |
| Construcciones<br>*Eraikuntzak* | (23.554.705) | (1.660.135) | - | (25.214.840) |
| Instalaciones técincas y otro inmovilizado material | | | | |
| *Instalazio teknioak eta bestelako ibilgetu materiala* | | | | |
| Instalaciones técnicas y maquinaria<br>*Instalazio teknikoak eta makinak* | (84.261.468) | (2.898.127) | - | (87.159.595) |
| Otras instalaciones, utillaje y mobiliario<br>*Beste instalazioak, tresneria eta altzariak* | (3.113.674) | (29.979) | - | 3.143.653 |
| Otro inmovilizado material<br>*Beste ibilgetu materiala* | (5.431.014) | (316.563) | - | (5.747.577) |
| | (92.806.156) | (3.244.669) | - | (96.050.825) |
| | (116.360.861) | (4.904.804) | - | (121.265.665) |
| INMOVILIZADO MATERIAL, NETO: | | | | |
| *IBILGETU MATERIAL GARBIA:* | | | | |
| Terrenos y construciones- | | | | |
| *Lursailak eta Eraikuntzak* | | | | |
| Construcciones<br>*Eraikuntzak* | 35.402.286 | (1.214.021) | - | 34.188.265 |
| Instalaciones técincas y otro inmovilizado material | | | | |
| *Instalazio teknioak eta bestelako ibilgetu materiala* | | | | |
| Instalaciones técnicas y maquinaria<br>*Instalazio teknikoak eta makinak* | 6.323.601 | (313.920) | - | 6.009.681 |
| Otras instalaciones, utillaje y mobiliario<br>*Beste instalazioak, tresneria eta altzariak* | 526.866 | 53.695 | - | 580.561 |
| Otro inmovilizado material<br>*Beste ibilgetu materiala* | 868.139 | (223.902) | - | 644.237 |
| | 7.718.606 | (484.127) | - | 7.234.479 |
| Inmovilizado en curso y anticipos<br>*Egite-bidean den ibilgetua eta aurrerakinak* | 245.777 | 238.616 | (245.777) | 238.616 |
| | 43.366.669 | (1.459.532) | 245.777 | 41.661.360 |

2013ko abenduaren 31n, Eusko Jaurlaritzak, gizarte-funtsaren titular bakar bezala, gizarte-funtsaren ez-diruzko ekarpen bat egin zuen Bilboko BAMI eraikina erabiltzeko eskubide gisa. Erakundeak eta sozietate kudeatzaileek bertan egiten dute euren jarduna. Erakundeak ibilgetu material gisa erregistratu zuen erabilera-eskubide hori, eta haren erabilera-lagapena iraupen mugagabekotzat hartzen du, ulerturik ez dagoela lagatzaileak ezarritako baldintzarik eskubide hori amaitzeko, jardueren jarraitutasuna besterik ez. Ekarpenaren zenbatekoa jasotako ondasunaren arrazoizko balioarekin balioetsi zen (15. oharra).

2022ko ekitaldiko inbertsio nagusiak Ustiapeneko ekipamendua berritzeari buruzkoak izan dira nagusiki.

Hauek dira inbertsio aipagarrienak maila teknikoan eta sistemetan:

- HD azpiegiturak partzialki berritzea (Backup HD matrizea, etab.)
- Trantsizio partziala Led teknologia-fokuetan hainbat platotan
- Iruñako egoitzako ikus-entzunezko ekipamendua berritzea.
- Lurreko lotuneak UM berritzea
- Irratietan irratirako edukiak ekoizteko tresna berria berritzen eta ezartzen aurrera egitea.
- Ordenagailuen eta eramangarrien hornidura.
- Informatikako eta telekomunikazioetako azpiegitura berria, albistegiak kanpotik egiteko.
- Bideo-konferentziako aretoen azpiegitura teknologikoak handitzea.
- Iturburu-kodean urrakortasunak kontrolatzeko softwarea ezartzea, segurtasun informatikoa hobetzeko.
- Aplikazioak garatzea eta hobetzea (APPak. Intranet, etab.).
- OTT plataformaren 1. fasea ezartzea

Instalazio orokorrei eta egoitzei dagokienez, honako hauek nabarmendu behar dira:

Con fecha 31 de diciembre de 2013, el Gobierno Vasco, como único titular del Fondo Social, procedió a realizar una aportación no dineraria de Fondo Social consistente en el derecho de uso del edificio "BAMI" situado en Bilbao, donde el Ente y sus sociedades gestoras llevan a cabo su actividad. El Ente procedió a registrar dicho derecho de uso como inmovilizado material por ser la cesión de uso del mismo de duración indefinida y al entenderse que no existen condiciones impuestas por el cesionario que desencadenen en la finalización de dicho derecho, más que la continuidad de sus actividades. El importe de la aportación se valoró por el valor razonable del bien recibido (Nota 15).

Las principales Inversiones del ejercicio 2022 se centraron principalmente en renovaciones de equipamiento de Explotación.

Las inversiones más destacables a nivel técnico y de sistemas son las siguientes:

- Renovación Parcial infraestructuras HD (Matriz backup HD etc.)
- Transición parcial en focos de tecnología Led en diferentes platós
- Renovación del equipamiento audiovisual de la sede de Iruña.
- Renovación UM enlaces terrestres
- Avanzar en la renovación e implantación de la nueva herramienta de producción de contenidos para Radio en las diferentes emisoras.
- Suministro de ordenadores y portátiles.
- Nueva infraestructura de informática y de telecomunicaciones para realización de informativos desde el exterior.
- Ampliación de infraestructuras tecnológicas de salas de Video Conferencia.
- Implantación de software de control de vulnerabilidades en código fuente para mejorar la seguridad informática.
- Desarrollo y mejora de diferentes Aplicaciones (APPs. Intranet, etc.).
- Establecimiento de la fase 1 de la plataforma OTT

En relación a las instalaciones generales y sedes destacar las siguientes realizaciones:

- GEOTERMIA Miramonen instalatzeko proiektuaren hasiera (PIREP proiektua).
- Eskailerak eta igogailuak berritzen jarraitzea.
- Klima berritzen jarraitzea Miramongo hainbat platotan (21,22 eta 26).
- 27. platoaren estalkiaren egitura eraberritzea, argien hornidura hobetzeko karga-esekidura ahalmena emateko.
- Miramongo perimetro-bidea egokitzeko obrekin jarraitzea.
- Iruñako egoitzako instalazioak berritzea

- Comienzo del proyecto de instalación de GEOTERMIA en Miramon (Proyecto PIREP).
- Continuar la renovación de escaleras y ascensores.
- Continuar la renovación de clima en diferentes platós de Miramón (21,22 y 26).
- Reforma estructural de la cubierta del Plató 27 para dar capacidad de suspensión de carga para la mejora de la dotación de iluminación.
- Continuación de las obras de acondicionamiento de la vía perimetral de Miramon.
- Renovación de las instalaciones de la sede de Iruña.

2022ko eta 2021eko abenduaren 31n ibilgetu materialeko elementu batzuk, etengabeko erabileran zeudenak, guztiz amortizaturik zeuden, 78.696.853 eta 92.796.625 euroko zenbatekoan, hurrenez hurren, honako xehetasun honen arabera:

Al 31 de diciembre de 2022 y 2021, los elementos de inmovilizado material en estado de uso continuado que se encuentran totalmente amortizados ascienden a 78.696.853 euros y 92.796.625 euros, respectivamente, según el siguiente detalle:

| | Euros / *Euroak* | |
|---|---|---|
| | 31.12.2022 | 31.12.2021 |
| Construcciones<br>*Eraikuntzak* | 4.459.331 | 4.457.504 |
| Instalaciones técnicas y maquinaria<br>*Instalazio teknikoak eta makinak* | 69.114.002 | 80.223.088 |
| Otras instalaciones, utillaje y mobiliario<br>Beste instalazioak, tresneria eta altzariak | 2.443.074 | 3.012.303 |
| Otro inmovilizado<br>Beste ibilgetu batzuk | 2.680.446 | 5.103.730 |
| | 78.696.853 | 92.796.625 |

2022 eta 2021eko ekitaldien itxieran, Taldeak instalazio teknikoarekin eta makineriarekin lotutako ibilgetu materiala erosteko konpromiso irmoak zituen hartuta, 5.235.321 euroko eta 1.790.402 euroko zenbatekoan, hurrenez hurren.

Al cierre de los ejercicios 2022 y 2021, el Grupo tenía compromisos firmes de compra de inmovilizado material correspondientes a instalaciones técnicas y maquinaria por un importe de 5.235.321 euros y 1.790.402 euros, respectivamente.

2022ko abenduaren 31n, Taldeak 2.278.556 euroko kopurua zuen ordaintzeke (2.251.516 euro 2021eko abenduaren 31n) ibilgetu materiala eskuratzeagatik, eta erantsitako balantze bateratuaren pasiboko «Epe laburreko zorrak – Beste finantza-pasibo batzuk» epigrafean erregistratuta dago esandako zenbatekoa.

Al 31 de diciembre de 2022, el Grupo tiene pendiente de pago por adquisiciones de inmovilizado material la cantidad de 2.278.556 euros (2.251.516 euros al 31 de diciembre 2021), figurando registrado dicho importe en el epígrafe "Deudas a corto plazo - Otros pasivos financieros" del pasivo del balance consolidado adjunto.

Taldeak hainbat aseguru-poliza dauzka kontratatuta bere ibilgetu materialeko elementuek izan ditzaketen arriskuak estaltzeko. Poliza horien estaldura nahikoa dela uste da.

Ibilgetu materialeko elementuek ez dute kargarik.

## (8) Errentamenduak

Taldeak partikularrekin zenbait errentamendu-kontratu ditu sinatuta, bere jarduna gauzatzeko behar duen materiala erabiltzeko. Kontratuen iraunaldia gehienetan urtebetetik beherakoa izan ohi da. 2022ko ekitaldian gastu gisa aitortutako errentamendu operatiboko kuoten zenbatekoa 490.115 eurokoa da (505.690 euro 2021eko ekitaldian).

## (9) Finantza-aktiboak

### *Finantza-aktiboen kategoriak-*

Ondoren zehazten dira kategoria eta motaren arabera sailkatutako finantza-aktiboak, alde batera utzita taldeko enpresen eta enpresa elkartuen ondarean egindako inbertsioak (10. oharra), eta kontuan hartu gabe eskudirua eta beste aktibo likido baliokide batzuk (14. oharra) eta horien liburuetako balioa:

El Grupo tiene contratadas varias pólizas de seguro para cubrir los riesgos a los que están sujetos los elementos del inmovilizado material. La cobertura de estas pólizas se considera suficiente.

Los elementos del inmovilizado material se encuentran libres de cargas o gravámenes.

## (8) Arrendamientos

El Grupo tiene contratos de arrendamiento firmados con particulares por el uso de material necesario para llevar a cabo su actividad. La duración de los contratos mayoritariamente suele ser inferior a un año. El importe de las cuotas de arrendamiento operativo reconocidas como gasto durante el ejercicio 2022 asciende a 490.115 euros (505.690 euros durante el ejercicio 2021).

## (9) Activos Financieros

### *Categorías de activos financieros-*

La clasificación de los activos financieros por categorías y clases, salvo las inversiones en el patrimonio de empresas asociadas (Nota 10) y sin considerar el efectivo y otros activos líquidos equivalentes (Nota 14), así como el valor en libros en euros de los mismos, se detallan a continuación:

**31/12/2022 / *2022.12.31:***

| Categorías | Euros / *Euroak* — Activos financieros / *Finantza aktiboak* — Créditos, derivados y otros / *Kredituak, deribatuak eta bestelakoak* — A largo plazo / *Epe luzera* | A corto plazo / *Epe laburrera* | | |
|---|---|---|---|---|
| | Inversiones financieras a largo plazo / *Epe luzeko finantza-inbertsioak* | Deudores comerciales y otras cuentas a cobrar / *Zordun komertzialak eta kobratzekoak diren beste kontu batzuk* | Inversiones financieras a corto plazo / *Epe laburreko finantzia inbertsioak* | Total corto plazo / *Epe laburrera guztira* |
| Activos financieros a coste<br>*Aktibo finantziarioak kostuan* | 113.331 | - | - | - |
| Activos financieros a coste amortizado<br>*Aktibo finantziarioak kostu amortizatuan* | - | 6.463.181 | 32.278 | 6.495.459 |
| | 113.331 | 6.463.181 | 32.278 | 6.495.459 |

**31/12/2021 / *2021.12.31:***

| Categorías | Euros / *Euroak* — Activos financieros / *Finantza aktiboak* — Créditos, derivados y otros / *Kredituak, deribatuak eta bestelakoak* — A largo plazo / *Epe luzera* | A corto plazo / *Epe laburrera* | | |
|---|---|---|---|---|
| | Inversiones financieras a largo plazo / *Epe luzeko finantza-inbertsioak* | Deudores comerciales y otras cuentas a cobrar / *Zordun komertzialak eta kobratzekoak diren beste kontu batzuk* | Inversiones financieras a corto plazo / *Epe laburreko finantzia inbertsioak* | Total corto plazo / *Epe laburrera guztira* |
| Activos financieros a coste<br>*Aktibo finantziarioak kostuan* | 113.331 | - | - | - |
| Activos financieros a coste amortizado<br>*Aktibo finantziarioak kostu amortizatuan* | - | 4.225.088 | 16.087 | 4.241.175 |
| | 113.331 | 4.225.088 | 16.087 | 4.241.175 |

Erakundearen zuzendari nagusiaren ustez, aurreko taulan zehaztutako kobratu beharreko mailegu eta kontu-sailen kontabilitateko zenbatekoa haien arrazoizko balioaren hurbilketa onargarria da.

El Director General del Ente considera que el importe en libros de los préstamos y partidas a cobrar detallados en los cuadros anteriores constituye una aproximación aceptable de su valor razonable y que su vencimiento es a corto plazo.

***Galdu-irabazi garbiak finantza-aktiboen kategorien arabera-***

Honako hauek dira «Maileguak eta kobratzeko partidak» kategoriatik datozen galdu-irabazi garbiak:

***Pérdidas y ganancias netas por categorías de activos financieros-***

Las pérdidas y ganancias netas procedentes de la categoría de "Préstamos y partidas a cobrar" son las siguientes:

| | Euros / *Euroak* | |
|---|---|---|
| | 31.12.2022<br>*2022.12.31* | 31.12.2021<br>*2021.12.31* |
| Ingresos financieros aplicando el método del tipo de interés efectivo<br>*Interes eraginkor tipoa ezarrita finantza diru-sarrerak* | 1.280 | 586 |
| Aplicación del deterioro de valor de créditos por operaciones comerciales (Nota 8)<br>*Kredituen balioa operazio komertzialengatik izandako narriaduraren aplikazioa (8. Oharra)* | - | (7.886) |
| Reversión del deterioro de valor de créditos comerciales (Nota 12)<br>*Merkataritza kredituen balorearen narriadura itzulzea (12. Oharra)* | 3.033 | 25.960 |
| Pérdidas por deterioro de valor de créditos comerciales (Nota 12)<br>*Merkataritza kredituen balorearen narriaduragatik galerak (12. Oharra)* | (3.560) | - |
| Ganancias (Pérdidas) netas en cuenta de pérdidas y ganancias<br>*Irabazi (galerak) garbiak galera eta irabazien kontuan* | 753 | 18.660 |

## (10) Enpresa elkartuetan egindako finantza-inbertsioak

Hona hemen erantsitako balantze bateratuetako epigrafe honetan sartutako kontuen osaera:

## (10) Inversiones Financieras en Empresas Asociadas

La composición de las cuentas incluidas en este epígrafe de los balances consolidados adjuntos es la siguiente:

| | Euros / Euroak | |
|---|---|---|
| | 31.12.2022<br>*2022.12.31* | 31.12.2021<br>*2021.12.31* |
| Inversiones a largo plazo-<br>*Epe luzeko inbertsioak* | | |
| Instrumentos de patrimonio-<br>*Ondare tresnak* | | |
| Participaciones en empresas asociadas<br>*Enpresa elkartuetan egindako partaidetzak* | 349.499 | 298.984 |

Ondare-tresnak:

Taldeko enpresetan diren partaidetzei buruzko informazioa 2. oharrean aurkezten da; hau da, bateratze-perimetroari buruzkoan. Sozietate horrek ez du burtsan kotizatzen.

Instrumentos de Patrimonio:

La información relativa a la participación en empresas asociadas se presenta en la Nota 2, sobre perímetro de consolidación. Dicha sociedad no cotiza en Bolsa.

## (11) Izakinak

2022ko eta 2021eko abenduaren 31n, kontzeptu hauek jasotzen dituzte balantze bateratuen kapitulu honetako saldoek:

## (11) Existencias

Al 31 de diciembre de 2022 y 2021, los saldos de este capítulo de los balances consolidados adjuntos recogen los siguientes conceptos:

**Ejercicio 2022 / *2022ko Ekitaldia***

| | Euros / *Euroak* | | |
|---|---|---|---|
| | 31.12.2021 *2021.12.31* | Variación / *Aldakuntza* | 31.12.2022 *2022.12.31* |
| Materias primas y otros aprovisionamientos/ *Lehengaiak eta beste hornikuntza batzuk-* | | | |
| Materiales para consumo y reposición *Kontsumo eta birjartzeko materialak* | 16.839 | 7.912 | 24.751 |
| Productos terminados / *Produktu bukatuak-* | | | |
| Producciones propias / *Berezko ekoizpenak* | 1.393.222 | 106.248 | 1.499.470 |
| Producciones ajenas *Besteen ekoizpenak* | 2.697.250 | 656.537 | 3.353.787 |
| Producciones de encargo *Enkarguzko ekoizpenak* | 1.164.129 | (7.470) | 1.156.659 |
| | 5.254.601 | 755.315 | 6.009.916 |
| Anticipos a proveedores / *Hornitzaileentzako aurrerakinak* | 20.338 | (20.338) | - |
| | 5.291.778 | 742.889 | 6.034.667 |

**Ejercicio 2021 / *2021eko Ekitaldia***

| | Euros / *Euroak* | | |
|---|---|---|---|
| | 31.12.2021 *2020.12.31* | Variación / *Aldakuntza* | 31.12.2022 *2021.12.31* |
| Materias primas y otros aprovisionamientos/ *Lehengaiak eta beste hornikuntza batzuk-* | | | |
| Materiales para consumo y reposición *Kontsumo eta birjartzeko materialak* | 13.829 | 3.010 | 16.839 |
| Productos terminados / *Produktu bukatuak-* | | | |
| Producciones propias / *Berezko ekoizpenak* | 900.875 | 492.347 | 1.393.222 |
| Producciones ajenas *Besteen ekoizpenak* | 3.175.835 | (478.585) | 2.697.250 |
| Producciones de encargo *Enkarguzko ekoizpenak* | 1.318.679 | (154.550) | 1.164.129 |
| | 5.395.389 | (140.788) | 5.254.601 |
| Anticipos a proveedores / *Hornitzaileentzako aurrerakinak* | - | 20.338 | 20.338 |
| | 5.409.218 | (117.440) | 5.291.778 |

Programen izakinak epe laburrera sailkatuta aurkezten dira, ezin baita zehaztu, hasiera batean, zer osaera izango duen emankizunen zerrendak eta, beraz, ezta nola aurkeztu daitekeen izakinen balioa ekitaldi jakin batean izan duten aplikazioaren arabera ere.

2022 eta 2021. ekitaldietan iraungitako igorpen-eskubideak dituzten izakinei baja eman zaie «Izakinak» epigrafetik.

2022ko abenduaren 31n, indarrean zeuden filmak erosteko zenbait kontratu, 176.151 dolar estatubatuarreko zenbatekoan (541.670 dolar estatubatuar 2021eko abenduaren 31n). Kontratu horietako batzuk urte askokoak dira epemugari dagokionez. Kontratazio-dataz geroztik, kontratatutako erosketen parte jaso da, eta hornitzaileekin ezarritako kontratuetan xedatutako ordainketak egin dira.

Taldeak hainbat aseguru-poliza ditu kontratatuta izakinek izan ditzaketen arriskuak estaltzeko. Poliza horien estaldura nahikoa dela uste da.

Las existencias de programas se presentan clasificadas a corto plazo, ya que no es posible determinar, a priori, la composición de la parrilla de emisión ni, por tanto, cómo presentar el valor de las existencias en función de su aplicación a un determinado ejercicio.

Las existencias cuyos derechos de emisión han caducado en los ejercicios 2022 y 2021 han sido dadas de baja del epígrafe "Existencias".

Al 31 de diciembre de 2022 existen contratos en vigor para la compra de películas por un importe de 176.151 dólares USA (541.670 dólares USA al 31 de diciembre de 2021). Parte de estos contratos tienen carácter plurianual en cuanto a su vencimiento. Desde la fecha de contratación se han ido recibiendo parte de las compras contratadas, habiéndose realizado los pagos estipulados en los contratos establecidos con los proveedores.

El Grupo tiene contratadas varias pólizas de seguro para cubrir los riesgos a los que están sujetos las existencias. La cobertura de estas pólizas se considera suficiente.

## (12) Bezeroak, salmentengatik eta zerbitzu-prestazioengatik

Taldearen aldeko merkataritzako kredituak 2022ko eta 2021eko abenduaren 31n, bezeroei dagokienez, erantsitako balantze bateratuan aurkezten dira, honako xehetasun honen arabera:

## (12) Clientes por Ventas y Prestaciones de Servicios

Los créditos comerciales a favor del Grupo al 31 de diciembre de 2022 y 2021 correspondientes a clientes, se presentan en los balances consolidados adjuntos según el siguiente detalle:

| **31.12.2022 / *2022.12.31* :** | Euros / *Euroak* | | |
|---|---|---|---|
| | Valor en libros / *Balorea liburutan* | Correcciones valorativas por deterioro/ *Narriaduragatiko balorazio zuzenketak* | Neto / *Garbia* |
| Clientes por ventas y prestaciones de servicios<br>*Bezeroak, salmentak eta zerbitzu-prestazioagatik* | 2.840.142 | (9.288) | 2.830.854 |

**31.12.2021 / *2021.12.31* :**

| | Euros / *Euroak* | | |
|---|---|---|---|
| | Valor en libros / *Balorea liburutan* | Correcciones valorativas por deterioro/ *Narriaduragatiko balorazio zuzenketak* | Neto / *Garbia* |
| Clientes por ventas y prestaciones de servicios *Bezeroak, salmentak eta zerbitzu-prestazioagatik* | 3.505.970 | (10.269) | 3.495.701 |

Erakundearen zuzendari nagusiaren arabera, liburuetan agertzen diren bezero-kontuen zenbatekoa arrazoizko balioaren antzekoa da.

Honako analisi hau kostu amortizatuan baloratutako finantza-aktiboen kreditu-arriskuaren ondoriozko narriadura-galerak jasotzen dituzten zuzenketa-kontuek 2022ko eta 2021eko ekitaldietan izandako mugimenduari dagokie:

El Director General del Ente considera que el importe en libros de las cuentas de clientes se aproxima a su valor razonable.

El análisis del movimiento durante los ejercicios 2022 y 2021 de las cuentas correctoras representativas de las pérdidas por deterioro originadas por el riesgo de crédito de estos activos financieros valorados a coste amortizado, es como sigue:

**Ejercicio 2022 *Ekitaldia* :**

| | Euros/*Euroak* |
|---|---|
| Saldo al 31 de diciembre de 2021 *Saldoa 2021ko abenduaren 31n* | (10.269) |
| Dotaciones (Nota 9) / Hornikuntzak | (2.052) |
| Reversiones / *Itzulketak* | 3.033 |
| Aplicaciones / *Aplikazioak* | - |
| Saldo al 31 de diciembre de 2022 *Saldoa 2022eko abenduaren 31n* | (9.288) |

**Ejercicio 2021 *Ekitaldia* :**

| | Euros/*Euroak* |
|---|---|
| Saldo al 31 de diciembre de 2020 *Saldoa 2020ko abenduaren 31n* | (36.229) |
| Dotaciones (Nota 9) / Hornikuntzak | - |
| Reversiones / *Itzulketak* | 25.960 |
| Aplicaciones / *Aplikazioak* | - |
| Saldo al 31 de diciembre de 2021 *Saldoa 2021eko abenduaren 31n* | (10.269) |

## (13) Finantza-tresnen arriskuaren izaerari eta mailari buruzko informazioa

Taldearen arriskuen kudeaketa Finantza Zuzendaritzaren esku dago, eta behar diren mekanismoak ezarrita ditu interes- eta kanbio-tasetan aldaketak gertatzeko eta kreditu- eta likidezia-arriskuaren eraginpean geratzeko aukerak kontrolpean izateko. Jarraian azalduko dira Taldeari eragiten dioten finantza-arrisku nagusiak:

### a) Kreditu-arriskua

Euskal Autonomia Erkidegoaren eta EITB taldearen arteko finantzaketa-marko egonkorral, programa-kontratuan mamituak (1. Oharra), modu esklusiboan jasotzen den finantzaketaren baldintzak eta zenbatekoak zehazten ditu; horrenbestez, bestelako finantzaketa moduek, maileguek edota kredituek berariazko baimena beharko dute.

Eskudiruaren edo baliokideen, tresna eratorrien edo banku eta finantza-erakundeekiko gordailuen arriskua minimoa da; izan ere, Eusko Jaurlaritzaren eta kaudimen handieneko finantza-erakundeen artean sinatutako Hitzarmenaren barne dauden erakundeekin egindako finantza-eragiketak onartzen dira soilik.

Bezeroekiko kreditu-arriskuari dagokionez, Taldeak kredituko aseguru-poliza bat du, eta haren bitartez ezartzen ditu, kalifikazio independente bidez, bezero bakoitzari emango zaizkien kreditu-mugak, aldizka berrikusten direnak. Taldeak bere barne-prozedurak ditu ezarrita, arrisku-muga horiek ez daitezen inongo unetan gainditu.

Taldeak, 2022ko abenduaren 31n kobratu beharreko 9.288 euroko zenbatekoan (10.269 euro 2021eko abenduaren 31n), bere kontu komertzialen balio-narriaduragatiko galerengatik egindako zuzenketa bati eusten dio (12. Oharra).

### b) Likidezia-arriskua

Taldeak finantza-tresna batean behar bezain azkar eta kostu gehigarri esanguratsurik izan gabe desinbertitzeko zailtasunak aurkitzeko

## (13) Información sobre la Naturaleza y Nivel de Riesgo de los Instrumentos Financieros

La gestión de los riesgos del Grupo está centralizada en la Dirección Financiera, la cual tiene establecidos los mecanismos necesarios para controlar la exposición a las variaciones en los tipos de interés y tipos de cambio, así como a los riesgos de crédito y liquidez. A continuación se indican los principales riesgos financieros que impactan al Grupo:

### a) Riesgo de crédito

